

Joan Perez de Lazarraga

ESKUIZKRIBUA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: Lazarraga - Eskuizkribuaren transkripzioa
[\[http://klasikoak.armiarma.com/lazarraga/\]](http://klasikoak.armiarma.com/lazarraga/)

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00694.htm>

1.— SILBERO, SILBIA, DORISTEO TA SIRENA

[...] bero e [...] edan egu [...] bere ugaza [...] tiak bere [...] pensadu eu [...] bada Silbe [...] idoro bagu [...] du eben kar [...] manera on [...]

«Ainbat eta [...] neure begi [...] daukadan [...] karta oneta [...] uste dot dau [...] nau ezautu [...] badau bere [...] orri mila bider [...] kausea dan azkero [...] ri remedio emun jagi [...] ain andia dan azkero edo bes [...] rik izango ezpada bere nai beki [...] esku delikaduokaz karta oni eranz [...] nai ezpadau ni zure mesedeorr [...] il nadin nagoan lekurea [...] orren [...]».

[...]ea Sirena [...]onjoean a [...]nak iraku [...]n buruan [...]jurteten ebela [...]eaz zeña eku [...]ena zan ez [...]i ez legian [...]ada mundu [...]ik andiae [...]ui eben kar [...]urrik ezautu [...]nik ezin esan [...]asegin artu [...]bio historieak ber [...]renak kartea idoro eben [...]u eben manera artan [...]ori bere ezer esan baga Silbe [...]a ebilirik utra jakiteko deseoa an [...]irenak kartea artu eben ala ez sar [...]txi eben lekura

nun idoro eben [...]itxi eben maneran bertan Zegaz utra asegin gutxi Silberok [...] ben bere biozean ekusirik a [...] bere gauzaetan zala ai [...] Silberoren asekabea ana [...] buruko zenzuna benzidu [...] artu eben ain maneraz [...] di batean irazarri ez zan [...] setan ebilela Sirenagaz [...] zidin utra espantadurik [...] bere pensamentua beti ber [...] la eta probaetarren pe [...] ganik apartadu aleia [...] biguela baz zena [...] au esaten ebel [...] egu [...] zeur [...]

Silbe [...] [...]Sirenaren berbea zegaz utra [...]artu eben esan zituan [...]k enzun ebelako bada e- [...]an Silbero egoala Sirena [...]ilberoren aposentura utra [...]az zeñak an egoan sill [...]berbaoko esaten asi [...]n.

—Silbero nagozu leen [...]arso oriek osteango da [...]el baten zeure eskuz [...]dekidazula zegati [...]bazu nik bere [...]gozu erregutan.

[...]au esanda [...] eben Si [...]an leku [...] baga [...]ti Sirenak [...]ten akorda [...]t eskrebie[...]

—[...]di eze ezin [...]zuk [...]ura Gura dozun ni enplea nadin zure serbizioan suplikaetan natxazu Sirena ene laztana nai dakizula gaur gabean

zeure aposentuko bentanara joaten eze an gura
dot neuronek emun [...] zuk agindu deustazun
kobrearen [...] badurik bada kartea[...]

[...] eben egoan lekurean [...] teti geldixe
iramo[...] ren aposentura nun [...] rri eben Silber-
ren [...] rik an zioana [...] eta Silberori [...]
urtengo le[...] bero bad[...] sirik Sir[...] nadu[...]
Silber[...] eta jarr[...] rik Siren[...] azpian[...]
netan eg[...] Sirena ben[...] anzat Silbe[...]. Artu
eben biguelea eta utra boz amorosoaz asi zan
manera onetan kantaeta:

Poeta gatxa idoro dozu
Sirena ene laztana
[...] bentajaok esateko
[...] nigana

[...]
[...] utra tristerik
[...]ik eztakarte
[...]ztiok ifinirik

[...]txadu dei detizke
[...] etorririk

[...]ate
[...] egirik

[...]
[...]zuzu
[...]txizkoak
[...]jazu

Ala bada nik orain, Jaungoikoa,
esango dot nola tratadu nauzun,
Sirena, utra birtute andizkoa
egizu silenziaz eskutxadu.

Silberoren kantu dulzeaz a [...] tu Sirenak
arzaite eben e [...] sentuan eukan zanpona [...]
utra dulzemente jaiten a [...] au esaten ebela:

Kañadaetan arza legez [...]
oi nago kongoxadurik [...]
ekusi inork ez nagia [...]
zugaz egiten ber [...]

Silbero zuk bad [...]
nola zure ag [...]

con tal que ne[...]
kutu ez dakid[...]

Alaze beti legez [...]
zuk erraz dasakezu [...]
zure kontra zegati [...]
ezer eginik ez na[...]

Sirenak bere kantu[...] [...] eben burua bere
besoaen ganean eta Sil- [...] bigueleari itxita artu
eben berekin [...] arpa bat eta asi zan bere mina
Sil- [...] deklaraetan manera onetan:

[...]ik esango ditudan berbaok
[...]go dira gutxi bazu
[...]jeau dodan azkero
[...]ditut nik komenzadu.

[...]engo ene penea
[...]ingo dozu donzellea
[...]n erexteagati
[...]la kateea.

[...]ai izango

[...] ateан
[...]jan gero
[...].

[...] banagizu
[...]ati
[...] ene laztana,
[...]ot zugaiti.

[...]a Silberoren berba [...]bentanea eta Silberori ezer esan baga sartu zan barrura. Silberok ekusirik zala Sirena enojadu, eskuetan eukan arpea iramo eben aiñ furia andiaz eze utra pedazu asko egin zan eta ala tristeza andiaz Silbero joan zan bere aposentura, nun asi zan llantu andi bat egiten, ain tristeza andiaz eze enzun egien guztiai emun egoan tristeza andia. Ainbat sentidu eben bada Silberok Sirenak agaz egin eben kasogutxia, eze etorri zan eriozako puntura.

Egun batean, bada, Silberoren ugazabak ikasirik nola egoan Silbero gaxorik, erregutu eusan bere emazteari eugi legiala kontu andia Silberori bear ebena emaiteaz, zegaiti zan utra keridua bere ugazabaren esean. Eta eseko andreak egin

eben ala. Silbero, bada, obato errejidu zegatizan? Eseko andreak agindu eusan Silbiari, zeña zan Sirenaren konpanian egoana, eugi legiala utra kontu andia Silbero errejieteaz, zegaz utra asegin andia artu eben ala Silberok nola Silbiak, zegati utra on alkarri erexten.

Egun batean bada, Silbia joan zan Silbero bisitaetan beti kostunbrezat eukana legez, zenagaz asegin andia Silberok artu eben, zegati ai kontu andiaagaz egiten eben, aibat zan Silberoen deseoa Sirena ekusterren, eze erregutu eusan Silbiari legiola ain mesede andia, eze legiola bere partez Sirenari erregutu bisitaetan eterri legiola, zegati leukala esperanza andia Jaun zerukoagan eze, aen mesedea serbidu izaten lizala, Sirenak bisitadu balegi bertati osatua zala.

Silbiak, bada, ezauturik Silberoen borondatza, prometidu eusan eze biaramunean sinfalta Sirena eroango leusala bere aposentura. Ainbat asegin Silberok artu eben Silbiak egin eusan promeseaz, eze kasi eukan gax guztia kendu jakan.

Biaramun goxean joan zidin Silbia Sirena bisitazen eta osteango beste berbaen artean egion

erregutu legiola konpania Silbero egoan aposentura joaten, eta Sirenak esan eusan eze asegin lebela, zeinzuk alkari eskuetarik eustela joan zirean Silberoen kamarara, nun sar zitezenean utra kortesmente Silberori berba egin eusaen, zeñak al egian cortesia eta mesura guztiaz saludadu zituan eta eskatu zidin arpa bat, zeña utra dulzero jaiten asi zan, manera onetan kantaetan ebela:

Donzellea, zegati zaoz
enegaz enojadurik,
zurekin ene aitasuna
orrela anzi jakinik?

Donzellatxo linda damea,
flordelisea zara zu;
ene penea dakusun gero
arren berba bat esazu.

Ekusirik Sirenak Silberoen platikea, artu eben Silberok eskuetan eukan arpea, zeña jaite ebela eranzun egion manera onetan:

Jentil hombre penadua,
enegaiti kautibua,
zure llantu dolorosook
emaiten deustae kontentua.

Bere kantaeta Sirenak akabadurik, urten eben ain laster Silbero egoan lekurean, eze ez zan bastadu inor bere biurketa. Silberok ainbat sentidu eben bada Sirenak esan eben berbaak, eze erorri zidin jarririk egoan silla baterean; ain agiz, eze, Silbia isasi ez ballako, ez zatean mirakuru an ila. Baegoan, bada, Silbero ain akordu gutxigaz, eze Silbiak uste eben eze eskuartean ilgo lizakala, areanda beregan biurtu zeitean artean. Eta destenpleak itxi egion orduan asi zan Silbia Silbero konsolaetan, bada bere ekusirik Silberok, ain kruelmente bere Sirenak trataetan lebela, ez eben gura inork berbarik legion, salbo bakotxik egon baxe. Eta, ala, Silbiak urten eben arean, nun Silbero geratu zidin bakotxik eta ain konsuelo gutxigaz nola inork pensadu ezin leian, zenak arturik biguela bat asi zan kantaetan manera onetan:

Esperanzeau galdu jat,
gutziz ez arren, parte bat;
neure laztanaen amorearren
egin gura dot negar bat.

Ai, ene desditxadua,
gaitxez rodeatua!
Kontentu uste neben orduan,
oi, zatort deskontentua!

Ene bioz penadua,
egun gaxki kuradua,
egun askotan bearko dozu
zeure aldean medikua.

Akabadurik bada Silberok bere kantaetaea, urten eben bere kamararean eta igo eben bere ugazabaren aposentura, zeña idoro eben isirik eta itaundurik esekoai nun zan esan eusaen nola emazteagaz joan zidin jardin batera eta beregaz eroan eben Sirena eta Silbia bere donzellaak.

Aditurik, bada, Silberok leen esan dogunau, joan zidin musiko bazuen esera eta erregutu eusten legioela lagun musika bat emaitera joa-

ten, zeinzuk esan eusaen baiez. Eta ala, bear eben instrumentu guztiak arturik, joan zirean. Eta eldurik Sirena eta Silbia eozentz lekuan, asi zirean Silberogaz joazen musikoak ain dulzemente jaiten euren instrumentuak, eze Silberoengen ugazaba eta agaz eozentz guztiak zitezen espan-tadu eta ezin pensadu eben nogaiti edo nork emaite eben musikaoa. Eta onetan eozela, ministrilak ixildurik, asi zirean lau musiko utra konzertu andiaz manera onetan kantaetan:

Donzellatxo, linda damea,
flordelisea zara zu;
nik zuri on dereizut baina
zuk ni erruki ez nauzu.
amaren seme bakotxa naiz ta,
arren, ondo ar naroizu;
ama enea seme baga
zuk ifiniko al dozu?
Ama eneaen seme bageaz,
oi, zuk zer probetxu dozu?
Lau urtebete euren gabakin
zeure onetan naukazu;
ene laztana, ene lindea,

nai dozuna egizu.
Ene laztana, ni ilagaz
zuk probetxurik badozu,
ori gerriko dageau eta
biozeraño indazu.

Ene laztana eriozea
sentizen ez dot bapere,
asegin eta deskansu baxe
zu bazarade serbizen.
Bada bere nai ez neuke
mundu guztiagaitirren
zuregaz ene sekretoa
deskubri lidin bapere.

Akabadurik bada Silberok bere musikeau,
ainbat asegin artu eben jardinean eozentzak eze
ez ostean geiago, espezialmente Silbiak, zeñak
utra on eretxan Silberori, zegati ezautu eben Sil-
beroren kantaetea.

Akabadurik leen esan dogun kantaeteau, Sil-
bero eta bere lagunak joan zitezen ziudadera,
nun Silberok emun eusten ain kolazio andia

beregaz eroan zituan musikoai eze ezin kontadu
al leidi, gizonak gurearren bere.

Eta kolazioa akabadurik, despediku zituan
musikoak eta, ai itxita, joan zidin bere esera, nun
asi zan bere erropaak kontuz maleta baten sар-
zaen, zegaiti esan eusan ugazabak eze biaramu-
nean joango zireala euren biajera, zeña zan Ita-
liako ziudade batera, zeñari ereizan Arzileo.

Arzileoko ziudadean
Silbero el zidinean
biziko zala uste ez eben,
oi, inor ordu batean.

Ainbat zan bada Silberoren
amore mina andia,
eze ez inor ekusterren
isaiten eben begiak.

Remediorik ezin lebela,
utra gaxorik ebilen,
fortunearen esai zala
ia asi zan sentizen.

Silbia dama galantori
pena andiaz bizi zan
Silberori on deretxana
akordazen da askotan.

Doristeo, zaldun gazte bat,
ebilen penaz beterik,
zegaiti utra on eretxan
Silbia donzelleari.

Sirena bere ainbeste dabil
besteok legez galdurik,
Doristeori on deretxala
Silbero anzi jakinik.

Kupido, nola dozu orrein gaxki
zeure matraz doraduok gobernaetan?
Zegaiti lauoi bardin on eretxi
ez deraustezu euren amoreetan?

Dago Sirenagaiti Silbero ilik;
Sirenak Doristeori on eretxan;
Doristeok Silbiagati asko dauko minik;
Silbiak Silberori eusan erreguetan.

Silberok, bada, ekusirik
bere desditxa andia,
negar egiten prometidu dau
bizi dan arte guztian.

Esperanza galdu jakinik,
bizi zan asegin bage;
joan gura dau lekureanik
kanpu[r]a bizi izaaten.

Leen esan dogun konkistan lau amadoreoek
egonik, zan lastima andia nork bere biozean
eukan tristezza ekusten, espezialmente Silber-
rok, zeñak ekusirik Sirenak besteri on eretxala
akordadu eben joaten arzai baten figuran erriae-
tarik, ez ain bizi lazeradua iragaiterren.

Eta ala, egun baten bere ugazabari lizenzia
eskatu jakan bere errira joateko, zeñak utra
damu andia artu eben Silberoen joateaz. Silber-
rok, bada, bere ugazabari lizenzia eskatu egio-
nean, joan zidin Silberagana, zeñari, negarrez
egoala, despedidu egion. Eta ia joateko egoan

puntuau atera eben rabel bat bere maukarean,
zena jaiten ebela asi zan negar egiten onela:

Ordu onean gera zatez
donzella linda erana,
noxbait noxbait akorda zatez
zurea nola naxana.

Esaitasun parebagea
nigaz zegaiti daukazu?
Muger arrizko bioza bano
gogorragoa zuk dozu.

Ni onerean joateko
kausea, oita, zara zu;
Jaun zerukoak, ene laztana,
oi, degizula parkatu!

Arren, Sirena, ene bioza,
suplikaetan natxazu,
nik merezidu ez badot bere,
ez nagizula anxitu.

Zeruko jaunaz, oita Sirena,
geratu bada zatez zu;
ni onorean banoa bere,
ene bioza zuk dozu.

Neure begiok giaduko dot
tristeza dan errira
aseginik sar ez dakidan
oi biozeti barrura

Despedidurik, bada, Silbero bere Sirenaganik, artu eben arzaiaen jazteko bazu eta asi zan bere biajea arzaien ponientekeko aldeetara. Eta bere bidea ekarrela, el zidin ribera utra kaudaloso baten, zenari eretxa Duero, Gaztelako probin-zian, nun zirean utra arzai aberasak. Ekusirik, bada, Silberok egoala utra urrun bere errirean, akordadu eben arzai aberaspatekin jarten arzai-zat. Eta ala egin eben, zegaiti biaramunean Askanio eretxan gizon aberaspategaz jarri zan, nun bere ganadua goardaetan eben.

Silberoren partierea,
oi, aditurik Silbiak
damu andia, oi, eben artu
bioz berean menetan.

Silbero baga bizi izaate,
oi, ezin eben sufridu;
aren azean joateko
da lizenzia eskatu.

Silbiak bere ugazabari
onela esan deuso:
—«Romeria bat egiteko,
jauna, daukat nik gogo.

Onegati serbizen bada,
arren, bear deust parkatu,
zegaiti biur nadinean
serbiduko zaut, jauna, zu».

Silbia despedidurik bere ugazabaganik, inork
ezautu ez legianzat kendu eben bere jaztekoak
eta artu eben arzai baten jaztekoak eta asi zan
bere biajea arzaen Silbero joeala ekian lekuetati.

Egun baten, bada, bere bideti jœala, topadu zan arzai bigaz, zeñai Silbiak itaundu eusten nora lloazen, zenak eranzun eusten manera one-tan:

—Arzai polita, ik jakingo dok eze guek goaze-la Dueroko riberara, zegaiti enzun dogu eze Sil-berro deretxan arzai batek dabela lutxa andiak armatu komarkaetako arzai guztiakin eta dagoa-la denporea asignadur egun seigarren eguneko, eta ala, ene lagunau eta ni goaz ara Silberoren jentilezak ekusterren, zegaiti utra manera andian dazauen guztiok alabadu deuskue.

Silbiak Silberoren izena enzun egian orduan asi zan negar egiten ain sentimendu andiaz, eze an eozen arzaiakgati izan ez baliz, ez zatean asko an ila. Ekusirik, bada, Silbiagaz eozen arzaiak egoala negarrez, zitezen espantadu eta ezin pensadu eben zer al zaatean kausea, arean-da itaundu eioen artean, zenak manera onetan eranzun eusten:

—Zuek jakingo dozu, eze Silbero, zuek esan dozun arzaiorregaz egon nax ni denpora andian eta ain da nik deusadan amorioa andia, eze neure erriari itxirik nator aen eske. Eta ainbat

asegin artu dot nun dagoan ikasiaz eze, munduan direan rikeza guztiak emun baleustae bere, ezin geiago artu neisus.

—Bada —esan eben arzai batak— orrela dan azkero, goazen guztiok batera, eze guek al dailgun lagundasunik onaena egingo deusugu. Bada bere, erregutan gagozu esan deiguzula zure izena, zegaiti obato alkar aditu daigun.

Onetan eranzun eben Silbiak:

—Zuek jakingo dozu, arzai nobleak, eze ni nazala Marsellako naturale etaene izena da Klarian.

—Orrela dan azkero —esan eben arzai batak—[...]

*(Faksimilean goiko zenbakitze zaharra
ez dago behar bezala jasoa,
baina dirudienaren arabera,
hiru orrialde falta dira
eskuizkribuan, 1148tik 1150era hain zuzen).*

[...]ren konpanian dagoan donzella batek, zenari deretxan Silbia, deretxula utra on eta ainbat graduan, ze zu ona etorri zareala ikasita eto-

rri gura dau zure eske, zenari zuk gura badeusa-zu on eretxi eta anxitu Sirena on ez deretxun azkero, nik prometietan deusut eze laster osatu zatezkeala daukazun gaxaesun orretarik.

Silberok leen esan dogun berbaok enzun egianean, zidin andiro enojadu eta egoan leku-rean jagirik joan zidin floresta bateti aurrera Klariani bakarrik itxita, zeñak bakarrik geratu zala ekusen orduan asi zan, negarez beterik bere begia zeukala, berbaolek esaten:

Klarian

Zorigatxean, oi, neuretako
amorea dot ezautu,
bardin gura naben azkero
onein kureldo tratadu.

Oi, amorezko errege jauna,
suplikaetan natxazu
degiozula, oi, Silberori
on derextala agindu.

Doristeok, bada, ekusirik bakarrik geratu zala bere Silbia baga, akordadu eben aen eske joa-

ten, zeñak partietako egoan egunean Sirenari berbaokoek egin eusan:

—Ondo uste dot, Sirena, daukazula aditurik Silbiak bere joateagaz niri bakarrik itxirik emun deustan pena, zeña dan ain andia eze uste dot iraungo baleu denpora askotan lizateala parte niri eriozea laster emaiteko. Eta kausaoek guztioik nik ekusirik, dot akordadu aen eske joaten, zeina deustae esan dagoala Silbero dagoan lekuau. Onegati zuk ezer gura badozu erriaetaruz esan egidazu, zegati utra borondate onez egin daudit.

Si[rena]:

—Ziertu bazeeki esan dozun berbaokaz egin deustazun asekabea, sinsketa dot ez zebela esango, bada bere, zeure borondate ori bestegan daukazuna legez, ezta mirakuru nigaz konturik euki eza. Bada bere, nik zuri deusudan amorioa ain firmea dan azkero, bazoaz munduen kabura bere, ezin itxi neidizu.

Do[risteo]:

—Eztozu zeren berbaoriek esan, Sirena, zegati dabe utra probetxu gitxi egiten ala zuretako nola enetako, zegati nigaz ezin inor lloake.

Si[rena]:

—Jaikoari nai ez dakiola zu joan da ni eben gera nadila! Orregati, Doristeo, zoaz nora ta nundi gura dozun, eze nik itxiko ezteuzut.

Doristeok ekusirik zala inpossible Sirena berriganik apartaetea, asi zan bere bidea arzaite, zeinak bere begiak negaretan eukala asi zan berbaoek esaten:

Doristeo

Oi, Sirena, zegaiti zatoz,
oi eta, ene azean,
inpossible, oi, dan azkero
nik zuri on erextea?

Sirena

Doristeo, zegaiti zoaz
zeurori bada galdurik,
Silbiak, oita, dakusun gero
on deretxana besteri?

Onela, bada, Doristeok eta Sirenak egin eben euren biajea, areanda Silbero egoan lekuan el zitezkeano, nun nor bere ugazaba banakin.

Egun baten, bada, Silberoa eta Silbia, Doristea eta Sirena, lauok batera nor bere ardiakin joazela, topadu zirean iturri fresko baten aldean, nun guztiak alkar ezauturik berba egin eusaen, espezialmente Silberok Sirena ekusen orduan esan eben:

—Oi, jaun zerukoa, ni nun ete nago? Lo ete naz ala irazarririk nago? Ezin sinisti dut neure Sirenaen aldean nagoala.

Berbaokoek esanda joan zidin Sirenaren aurrera, nun belauriko jarri zan negarrez egoala berbaokoek egite lebela:

—Oi, Sirena, zenaen begiok direan norteagaz konparaduak, natxazu suplikaetan nai dakizulaene peneau onein andia dan azkero remedioa emun jagite.

Sirenak Silbero bere aurrean ekusen orduan utra enojadurik esan eusan:

—Ken zatez ene begietarik, zegaiti nik ezterretxut on zuri bapere bano geiago, zegaiti ene bioza Doridogan dago.

Silberok au enzun egian orduan bere buruari itxi eusan lurrera jausten, zeñagana Silbia joan zidin lasterka, esaten eusala:

—Jagi zatez, Silbero, orrean eta itxi egiozu orrein kurelدو trataetan zabenorri eta zatoz nigana.

Silberok eranzun eusan:

—Silbia, ken akit orrean, zegaiti nik ezin anzu tu neidi anibat denpora on deretxadan gauzea.

Silbiak au enzun egianean desmaiadurik erori zan, zenagana joan zidin laster Dorido eta esan eusan:

—Ai, Silbia, ene laztana, akorda zatez zein on deretxudan eta bai nola zabilzen enganadurik igui zabenaren azean: ene amorioau anzu jakinik suplikaetan natxazu degidazula remedioa emun, medezinea zu zarean gero.

Silbiak Doridoren berbaok aditurik esa eusan:

—Esan ze egidazu berba oriek, zegaiti gurago dot Silberori on deretxadala il, eze ez a anxituta bizi izan.

Doridok eukan esporzu guztia galdurik, ezin zan lurrera utra negar asko bere begietati ezartzen ebela. Sirenak, bada, Dori[d]o lurrean negarrez ekusi egian orduan, joan zidin agana konfiadurik respuesta obea idoroko ebela agan ark Silberori emun eusan bano, eta esaten asi jakan:

—Egun askotan, Dorido, esan deusut zegaiti zabilzen on ez deretxunorren azean galdurik eta ez dozu sinistu izan nai, areanda zeure begiokaz ekusi dozun artean. Bada, onela dan azkero zeure buruori, desenganadurik nago zu mesede eske onerean aurrera on eretxi degidazula.

Doridok utra enojadurik eranzun eusan:

—O, falsa traidorea, ken akit neure begietarikene desditxeonen kausea i axan azkero, zegai ik Silberori on eretxi baeuso, Silbiak bere niri ezin ukatu eidan neure remedioa. Bada, oneinbat gatx ire kausaz etorri dan azkero, zegaiti ezton losarik berbaoriek esaten gure aurrean?

Enojuzko berbaaoek Silbiak bere Doridoren aorean enzunik, zidin desmaiadurik lurera jausi.

Onela lauak eozela desmaiadurik, Silberok esan eben:

—Nagin Sirena remediadu!

Si[rena]:

—Ni Doridogaiti gaxo nax!

Dorido:

—Silbiak katigaturik nauko!

Silbia:

—Oita Silberok ni il nau!

Platikaoetan lauok eozela, aditu eben os andi bat kanputi etorrena, ain andia eze utra espartadurik eozentzera al zatean ezin pensadurik, areanda Doridok burua goratu ta ekusi eiano salbaje terrible bien figurea, zeinzuk zirudien sua aoetati ezarten ebela eta euren eskuetan ezartzen arko bana fletxa zorrozakaz armaturik. Eta Doridok ekusi egian orduan, esan eusan Silberori:

—Jagi zatez orrean laster, Silber, zegaiti eben datoz salbaje andi bi ondo armaturik guri biziok edetera.

Silberok enzun egian orduan Doridoen berbaak, utra espartadurik jagi zidin eta artu eben nork bere armak. Bada bere aek ondo begiratu orduko salbaje biak arrebatadu zituen Sirena ta Silbia, zeinzuk utra laster ta erroitu andiaz eroan zituen florestati beera Silberok eta Doridok remediorik emun al baga, zeinzuk geratu zitezen espartu eta tristeza andiaz nork bere eben one-retxia galduagaiti eta ezin pensadu eben nuen agintez edo nora salbajeak eroan al eukeen. Eta prometidu eben biak ez alkarri itxi jagiteko, areanda Sirena ta Silbia idoro artean.

Onetan egun bat eta gau bat irago eben solamente negar baje beste gauzarik egite ez ebela, zeinzuk bigarren egunean, zerbait janda, loak artu zituan arbole fresko bazuen azpian, nun lorik gozoenagaz eozan orduan aditu eben kantaetaz etorrela odeietati figura eder bat, zeña ekusiak emun eusten bildur andi bat eta uste eben ze Sirena eta Silbia eroan ebenak letozela aek bere eroatera.

Bada bere, odeietati etorrenak berba egin eusten manera onetan:

—Ez bildurrik zeuren biozeten artu, arzai amoraduak, zegaiti ni ez nator zuei gatxik egiten, daukazun gatxorrendako remedio emaiten baxe, eta ala atenzio andiagaz aditu egidazu esan gura deusudan berbaok. Zuek jakingo dozu eze araenegun ekusi zeben salbajeak direala Narbaez enkantadorearen mutilak, zenak bere enkantamentu andiaz ikasi eben nola eben eozan zuen kausaz eta, zegaiti zuek eta aek aseginik artu ez zegian, eroan dau konfusioko esera, nun utra katea andiakaz daukan eta onerean irugarren egunean aterako ditu buruak edetera zuek sokorridu ez badagizu nik esango deusudan

manera onetan. Zuek jakingo dozu eze ni bidaldu nabela batalla eta gerratako jaikoak, zeñari deretxan Marte, eta area emun deust ezpataoek zuendako espilu onegaz batetan eta dio joan zatezela konfusioko esera eta an el zatezenean, zeuren ezpataok eskuetan artuta, belauriko jarrik espiluonetara begira zaozela. Eta dakuskezun gauzagaiti ez begiok espilurean kendu, zegaiti bertati galduko zara; eta, barriz, kendu ez badagizu ni joango nax bear dozun orduan lagunketara.

Silberok eta Doridok leengo berbaok enzun egian orduan utra asegin andia artu eben euren biozeten, zeinzuk bertati nork bere espiluak eta ezpatak arturik joan zirean konfusioko esera, nun eldu zirean irugarren egunean, nox Sirenak eta Silbiak il bear eben. Eta an eldurik, jarri zitezen begira kanpuruz nun ekusi eben egoala konfusioko esea ai fuerte eta galanto labradurik nola ezin ainbeste munduan al zatean.

Onetan eozela, aditu eben etozela jente asko deadarrez, zeinzuen erditan etozen Sirena ta Silbia soka bategaz esku delikaduak loturik lepora, euren guardazat sei salbaje aldeetati ekartela,

zenak pregonaetan eben Narbaezek aen kontra
emun eben sentenziea manera onetan:

Narbaez gizon sabioak,
oita, egun dau agindu
eriozeaz donzellaok,
oi, dagiela pagatu.

Onezkerro ez ditezen
amoreagaz burladu;
oenzat kastigua dan eta
besteoenzat exenplu.

Bioen kontra probanzea
klarua dago ziertu,
Doridogaz Silberoren berbak
zerren ez eben sinistu.

Alaze, bada, zuek batera
guztiok esan egizu:
«amorekin kruel danak
onela begi pagatu».

Enzun dozun pregoeau
egienean aditu
Doridok eta Silberok bere,
oi, ezin eben zufridu.

Belariko jarri zirean,
laster zitezen armatu;
espiluak arzaiterako,
oi, dira determinadu.

Zeruetako erregeari,
oi, dira enkomendadu,
suplikaetan lizatela
nai lekiela lagundu.

Silbero ta Dorido onela eozela, baetozen Narbaezzen jentea euren pregoea deklaraetan ebela. Donzella desditzaduak euren amoreak an ekuslen orduan, ezin zufridu eben negar egin baga egoten, zenak berba amorosoakaz esan eben berbaoek:

—A, gizon doloraduak eta kruelak zeuen bizioendako, nola azartu zara zaozen lekura etorten, klaru dakusun azkero biziokaz bano

gutxiagogaz pagatuko ez dozuna eta asi que asi ilgo zaituen azkero? Inolako maneraz defendidu al bagagizu emun gura deuskuen tormentu one-tarik, zuen kausaz arzaite dogun azkero, zuek bere libertaduko zara edo bestela guek eta zuek bearko dogu jente krueloen eskuetati eriozea gustadu.

Berbaolek arzai biak enzun egienean, Jaikoak daki ze asegin gutxi euren biozeten artu eben, bada bere, Marteren mandatariak agindu eustena ez ausaiteren, ezin ezer egin eben. Eta donzellak ekustenean eueren on eretxiak remediorik emaite ez eustela, ia eozan eueren esperanza galdurik, bada bere dios Marteren mandataria ezpata bategaz salbajearen arteti sartu zan utra agiz emuten leustela bere ezpata zorrozagaz, zeinzuk ies egin eben Sirenari eta Silbiari itxirik, zenai eskuak askaetan egotela Silbero eta Dordio, enzun eben aen alderuz kantaetaz etozela gizon bazu, zenak ekarten multitxo bat silla baten jarririk utra ponpa andiaz, zeñak eukan tafetaezko benda bategaz begiak isirik eta eskuetan arko bat saeta zorroz bategaz armaturik, zeinzuk esaten eben utra konzer-[...]

*(Zenbakitze zaharraren arabera,
lau orrialde falta dira
eskuizkribuan, 1155tik 1158ra hain zuzen).*

2.— GUGAZ ETORRI NAI BADOZU

Gugaz etorri nai badozu
erraz daizu ekusi
donzella linda damarik asko
munduan parebagarik
joan ninzan da ekusi neben
asko donzella galantik
konziertu konzertaduaz
oita guztiak jarririk
retulo bat ekusi neben
kanpuaen alde bateti
urregorrizko letra bazugaz
egoan eskrebidurik
eozen begi ederrik asko
aren aldean jarririk
nungo direan esaten dabe
alkarri begiraturik
Ozaetako bandereagaz
oita gu gara etorri
iguzkiaren aldean dago
gure onrea jarririk

geure azean guk darabilgu
mundua katigaturik
goitixeago ekusi neben
beste alderuz eginik
donzella flordelisarik asko
guztiak gorriz janzirik
gaztelu Gebarakoan gara
gu bizi defendidurik
gure jazteko gorriok dira
kontentuagaz josirik
justarik asko zaldun guztiok
egiten dabe gugaiti
amoriozko errege jauna
ekusi neben bertati
dama bazuen oñetara
oi belauriko ezinik
zeinzun ekarten debiseagaz
ezautu ditut badanik
D'Erediako galea dator
ponpa andiaz beterik
oi ainbait dira ederrak eze
ni nago admiradurik
zaldunik asko ekusi neben
guztiak oriz janzirik

zeña dan utra librea gatxa
desesperanzas beterik
Ezkerekotxan oi darabilte
pensamentuak galdurik
zegaiti ango larrosatxoak
eztau piedaderik
librerik eta ardura baga
oita dirade ebili
zegaiti ez dau amorioak
bere fletxeaz iregi
aen bioz utra gogorrak
bularrak erdiraturik

3.— ARK ILTE NABEN GERO NI

Zu ekusita beste gauzarik
oi ezta zerren ekusi
zegaiti alegriarik ez da
munduan zure parerik

Ain kontenturik nago ni zugaz
nola zu nigaz gaxtoto
zegaiti jaunak egin ez naben
zure kontentamentuko

Zure begiok nekusenean
bertati neben ezautu
oienta ezin ze indidala
neure bizian gozadu

Ene laztana ze daidizu
zeure gogoan pensadu
zuk ni gaxki tratadu arren
oi ni naxala azpertu

Zegaiti emaiten deustazu
zuk onelako bizia
bizi naxala iragaiten dot
munduko pena guztiak

Penado de tanta pena
nago zu ekusizkero
y ninguna cosa buena
oi enetako ez dago

Joan gura dot ekustera
nik on deretxadanari
joan gura dot ekustera
ark ilte naben gero ni

Lastimadurik joango nax
amoreaz da fedeaz
beti bere erruki naben
munduak eta jenteak

Ezzin faltarik neidio
nik on deretxadanari
joan gura dot ekustera
ark ilte naben gero ni

Zu ekustera etortearen
ene lindatxo maitea
penarik asko iragaro dot
egunean da gabean

Ona etorri naxan azkero
eskerrik asko jaunari
joan gura dot ekustera
ark ilte naben gero ni

Ene fedeau andia da ta
ondo tratadu nagizu
oneinbat bider eriozea
zerren emaiten didazu

Ene lindea serbisen bada
kolpe batean il nagi
joan gura dot ekustera
ark ilte naben gero ni

Otras

Aren egia bat zarezt
on dereitzazuin ala ez
aoan laztan zaitudaz bana
gogoan batez ere ez

Donzellatxo atrebidea
ez zabilz ene gogoan ez
bestela ondo deizut baña
ezkondu baxin batean ez

Gure ortuan madari
gura zaurik amabi
beste amore bilatuko nax
amore bear banadi

Ene laztantxo linda damea
esporzu artu egizu
uste gutxien dozun orduan
enegaz bearko dozu

Urtan eder arria
aen gañean txoria
amorantian lekidanari
atera neio begiak

4.— BETI PENSAMENTUAN GALZAEN ZAITUE

Linda damatxoa
nola zanode
beti pensamentuan
galzaen zaitue

Ezer trabajurik
oita badozu
ene laztantxoa
arren esazu
guztiau zurea nax ta
erraz dakiket
beti pensamentuan
galzaen zaitue

Ene laztanorrek
arren esazu
laztan nindukezun
on baneretxu
zure mutil ninzan
gura zendukez
beti pensamentuan
galzaen zaitue

Inoen bildur baga
arren esazu
zeure pensamentuan
zer dadukazun
zurekin ene faltaok
estaliko det
beti pensamentuan
galzaen zaitue

5.— BETI PENSAMENTUAN GALZAEN ZAITUEZ - 2

Linda damatxoa
nola zanode
beti pensamentuan
galzaen zaituez

Ezin trabaxa
ibar ibar
lelo (*Irakurtezina*)alelo
ibar ibar lelo
xeá suturadok
egi dabe zeze
adar bagea
audikarok naun
deusai golpea
ilgo bere ba(*i*)ten
uai ai egiten
aren burlea

6.— FAMA ANDIA ZATOZ NIGANA

*Loa de las damas y
galanes vascongados*

Fama andia zatoz nigana
arren zaakit lagundu
mundu guztiko erreñuetan
laster egizu famadu
txoriak eta tortolatxoak
gura deusut agindu
gure erriko abantajaok
daikezula kantadu
oi onezkerro goxozetan da
kantu dulzeaz loadu
jaun zerukoa nik errazoaz
beti zaidaz loadu
zerua eta izarrak bere
oita ze bitez ixildu
isasourrek horbe guztiaz
beti zagie laudatu
zegaiti dozun Euskel Erria

ainbat bentajaz dotadu
isasoori tinta balidi
zeru zabala liburu
oi Arabako abantajaok
ezin litezke kontadu
jente noblea ezin nesake
bear deustazu parkatu
flakezeonen bildur nax baia
oita gura dot azartu
Barrundiako dama galantak
esaten irakastazu
Axparreneko larrosatxoak
geraziea indazu
morroe galant estiraduak
oi defendidu nagizu
oi Gaztelako errege jauna
erregiagaz ikasu
zeure kortean dama ederrik
nola bapere ez dozun
zegaiti Euskel Errian dira
eder guztiok dotadu
ene berbaok jente noblea
ze daidizu pensadu
neure erria alabazerren

nik ditudala finjidu
badanik bere jakin egizu
oita naxala fundadu
oi antxinako liburueta
zeñetan ditut ezautu
Euskel Erria uoi nola eben
errege batek pobladu
jente noblez da lenguajeaz
zenak eusten agindu
zeruko jaunaren fedea santua
oi legiela kunplidu
oi Salamonek eskribizen dau
jente noblea jakizu
bere bizian oi ez ebela
jente barrik topadu

8.— JAN DONEANEZ BEZPERA BATEN

*Un caso que acaesció al autor
en un camino con una dama*

Jan Doneanez bezpera baten
igaro ninzan basoti
Iruraizko hermandadean
leku on baten aldeti
dama bategaz topadu ninzan
lindexa parebagarik
berba egiten asi ninzazan
jarri ginean geldirik
neure bizian ekusi ez dot
ain gauza abisadurik
forma onetan berba negion
ez jat anzitu berbarik
alabazen dot zeruan jauna
bide dodana eginik
zegaiti naben zuregaz batu
lindexa eben bakarrik
edolabere joan bano leen

oi bear dozu ikasi
zure amorez ene laztana
nola nagoan galdirik
eranzun zidan utra kortesdo
begiak abajadurik
neure buruau erraz daudit
nik ditxosazat edugi
jentil honbrea zegaiti naxan
egin ni zugaz topadiz
oi eta barriz osteangoan
arren ze begit burlarik
ene laztana ene fedea
ez dot egiten burlarik
egun askotan ni ebili naiz
ez dot edugi ditxarik
ene lindea zu ekusteko
banago sepultadurik
oi arren jauna ixilik bego
ze besat orrelakorik
oita zegaiti zu eraiteko
ni eztot poderiorik
poderioa andia dozu
zeruko jaunak emunik
zure begiok ekusizkero

banago katigaturik
pensamentuok altuan ditut
zuk ala mereszidurik
oi eta ez dot abajaduko
neure bizian punturik
zure berbaok adietako
ez dot entendimenturik
klaruxeago berba egizu
edo zaoza ixilik
ene laztana zure bildur nax
ezin egin dot berbarik
nik klaruago banesakezu
oi baneu lizenziarik
ene laztana enzun nagizu
arren ez artu penarik
neure peneau esan bear dot
ezin neonke ixilik
donzellatxoa egun batean
oi eta ninzan etorri
zure lekura flordelisea
oi inor baga bakarrik
zeure eseko portaleetan
oita zeonzen jarririk
neure begiok goratu neben

ez neben pensamenturik
dama galanta an zeonzela
oita zeurori bakarrik
atrebimentuz usadu neben
banago gaztigaturik
itaundu nagon poridadean
beste donzella bateri
nola ereizun zeure izenaz
eranzun zidan Katalin
oi arrezkero jaun zerukoak
bertxeak daki bakarrik
Katelinatxo nola nagoan
amore minez gaxorik
zuk baxe inork ezin liket
munduan remediorik
ene laztana osa nazazu
ez egin beste gauzarik
leku onean topadu gara
jaun zerukoak gurarik
oi apeadu bear neuke
badozu borondaterik
ene laztana solas daigun
geurtxeok biok bakarrik
jaun zerukoan amorearren

jauna zaoza geldirik
basoan neurau bakarrik nago
ze begit agrabiorik
ene laztana ezin neike
nik orrelako gauzarik
kulpa andia ezarri leidae
eiza galdu banegi
jentil onbrea ez neikezu
neure bizian berbarik
oi eta bardin ezpa ze egit
oi orain itxi librerk
biarreziakurrean datozen
arren betorke ebeti
al dagidana nik egingo dot
ez artu asekabarik
orrela gura dozun azkero
ezin neike besterik
domekaan etorriko naiz
eztot egingo faltarik
askotan ondo geratu zatez
ene lindea bakarrik
oi esegino lagun deizut
badozu borondaterik
eskerrik asko jentil honbrea

ez dot ardura lagunik
gaazustenak oi ez dagien
pensadu beste gauzarik
itxi neusan berbaxkoek
neure laztanaz eginik
berori defendidu jat eta
ni geratu nax galdurik

9.— EZKON BAZATEZ EONGO ZARA

Donzellatxoa orain zaoz
soberbiagaz beterik
ezkon bazatez eongo zara
ardia legez masarik

Egun bazaoz libertadeaz
oi noxbait galduko dozu
fortunea kurela dana
aldi bat pensa ezazu
onezkero fiaze zatez
ez artu fantasiarik
ezkon bazatez eongo zara
ardia legez mansorik

Beste bategaz ezkondu arren
uste badozu oba dala
errazoaz desakezue
la bella mal maridada
orduan akordaduko zara
oi nola esan nizun nik
ezkon bazatez eongo zara
ardia legez mansorik

Ala zara mudaduko ze
ez zau inork ezautuko
bizi beste bat artuko dozu
kondizioak ken zaiteko

10.— SAN DONATO JAUNA

San Donato jauna
doneatxia
erakustak neure
oneretxia
arren agir zatez
izar zuria
bein Ernandez da
gero Maria
akabadu eztididin
ene bizia
ez nigana iramo
zeure gezia
sinis ezakezu
ene egia
noxpait irekazu
zeure begia
zuretako nik daukadan
guztia
ezta minzor salbo
ezti eztia
zugan ereingo dan

ene azia
ez bildurtu eze
ezta gazia

12.— NESKEA BILDURAGO NAX

Iragarri oi ez nagizun
jentil honbrea bildur nax
neurk ekusirik nola zarean
neskea bildurago nax

Nola andraen bildur zara
aek baga onik ez badozu
aen obraen oita bildur nax
zure bere bai badagizu
ez dot egingo gauza gaxtorik
oi ez dasazun bildur nax
neurk ekusirik nola zarean
neskea bildurago nax

Zerren diozu sekretorik
oi andraetan ez dala
zerren kausea begirazaka
ifinten dabe obratan
faltaduko jazulako
zenzuna gogan bear nax
neur ekusirik nola zarean
neskea bildurago nax

Andraetan diskreziorik
ez dala uste al dozu
bai baia daben zenzutxoori
gaxki daroae giadu
oita bildurak ikara nabil
ez dakit neurau nor naxan
neurk ikusirik nola zarean
neskea bildurago nax

13.— ARREN TXORIAK EXILIK ZAOZ

Arren txoriak exilik zaoz
badozu miramenturik
mundu guztia isasoagaz
nanzuzu zaoz geldirik
dama galantak ni ez nax digno
ez dot mereszimenturik
zuetan miiau ifinterako
banago losaz beterik
oi bada bere borondateau
dadukat utra osorik
zeñak ixilik egoterako
ez dit emaiten lekurik
obligazioz bete ninduzun
guztiok ala gurarik
pagaetako ezin neike
bapere serbiziorik
oi bada bere presentetxoau
artu egizu niganik
lizenziea arren indazu
badozu borondaterik

dakidantxeau esaterako
ez egin beste gauzarik
gauzaxe batek oita nauko
andiro enojadurik
donzellatxoak esan bear dot
ezin neonke exilik
zuegaz barriz ez eukaen
oita bapere konturik
ene bizia geratu ninzan
andiro afrontadurik
zeruko jaunak oi ekiela
amoreokin ditxarik
zerren da zeurok serbietako
ez daben konstanziarik
dama galantak sinis nazazu
oi ze ukazu dudarik
lekuonetan biziko baninz
ez neiala besterik
gabaz egunaz serbidu baxe
sekula asperzakarik
au zuegaiti egiterako
asko da errazoarik
oi bada bere bizioi nax
jaun zerukoak gurarik

(z) iudadetxo txikir batean
(n) eurtxeau bakar bakarrik
ene izena letra onetan
oi dago eskreibidurik
oi onegaiti jentil onbreak
ez egon enojadurik
zegaiti zuek enojazeko
ez dot nik borondaterik
guzti guztiok serbizerako
nago ni obligadurik
oi bada bere ziertamente
banago enojadurik
zerren damaok serbietako
ez dozun miramenturik
geixeago esango neben
eugi baneu astirik
badanik bere amoreonek
ez dit emaiten lekurik
on deretxunai on eretxazu
ez artu soberbiarik
zegaiti laster orrako gara
oetan akabadurik
amoreata biok gabilza
ez dogu beste lagunik

dama kurela ifinten dogu
gaztigaduta mansarik
abisaetan zaitudan gero
ez egin beste gauzarik
zuen arteko donzella batek
nauko enterradurik
aen izena letra onetan
oi dago relatadurik
pensamentuok altuan ditut
ark ala mereszidurik

14.— JAIO ZITEZEN MAIAZ ILEAN

Jaio zitezen maiaz ilean
amorioa oekin
donzelleari Lora ereizan
morroeorri don Martin
egun batean jaio zitezen
jaun zerukoak gurarik
oen artean jasarri zidin
amore mina dulzerik
mundua mundu formaduzkero
oi ez da jaio semerik
ene ostean nor izan dan
au baño gizon firmerik
ese banatan bizi zirean
zeñak eusten alkarri
eurak biak oi ebilzen
bapere baga lagunik
gazte zirean artean baña
azkero beti loturik
zerren guztiak egon joazen
andiro admiradurik

oi nola beti ebilte dira
Martin da Flora bakarrik
aita amaok efini dabe
flora oi enzerradurik
zerren bertati jarri zirean
sospetxa gatxez beterik
amoraduok ekustenean
euren buruak loturik
aen biozak nun bere baita
egon joazen tristerik
pensamentuak leukaela
dolorez mantenidurik
remedioa bila zitezen
eurenzat gora kastarik
bijeak alkar ekusterako
olzori dabe iregi
ifini dabe miraderoa
bioendako zilegi

15.— TENPORA BATEN BANEROEAN

1

Tenpora baten baneroean
dama eder bat serbidu
audenziarik ez emunaz
oi ninduan penadu

2

Gabaz egunaz oi nituan
aren atea rondadu
askotan sarri nik neroean
rekeridu ta segidu

3

Aldi bat leku sekreto baten
neuroni zidan agindu
jentil onbrea ona zatozke
gura banozu gozadu

4

Aren aoti berbaoa
negianean aditu
reberenzia jagiteko
belaunok neben inkadu

5

Krianza onez gura ekion
ni arerean goratu
esku zauden on baekidan
neure besoti oratu

6

Ark niri tira nik ari pulza
ainbat negian aspertu
supitamente baekion
uzkar andi bat soltadu

7

Neska gaxoa ainbat zidin
afrontaduta korridu
begietati laster ekion
itogintxo bi mobidu

8

Nik banegian aleginaz
palagaduta exildu
finjidu neben ez nebela
nik alakorik aditu

9

Esan eustan ai ene jauna
zuk egidazu parkatu
sekula barriz ezin neinde
zure aurrean agirtu

11

Zuk onenen kontra gura badozu
rebelde izan jakizu
ene parteti izango zara
justiziara zitadu

12

Nik zu andiro laztan izana
an izango da probadu
zuk bere niri derextazula
an eskatuko natxazu

13

Amoradua amorez ilten
ezin leite sufridu
edo berandu edo goxago
zuk bear nauzu kuradu

14

Karro trunfala ene perlea
nik bearko dot gozadu
Mazias gloriosoa legez
ezpanagie ebenada

16.— GAZTELATIKA JENTIL ONBRE BAT

Gaztelatika jentil onbre bat
orain eterri ei jaku
eterrizkero donzella batek
amorez ei dau benzidu

Donzelleorri on deretxo
donzelleorreko ez ari
au onela oi dan azkero
eskerrik asko jaunari

Joan Lopez jauna Zuazuko
ene esan bat egizu
bardin on ez deretxun gero
donzelleorri itxazu

Zure adiskidea nax ta
geiago ez dot esango
zegaiti baki dakusunean
nola zarean eongo

17.— KOPLARIK ONDO ORDENAETA

Koplarik ondo ordenaeta?
abilidade badozu
orain egin dan ortos andian
metrifikadu egizu

Au esan eta baekidan
ies eginda estaldu
ilabetean ezin oi neben
sekula barriz topadu

Egun batean leukala
beste bazugaz kabildu
aen artera izan ninzan
exil exilik koladu

Aren aldean jasarri ninzan
zerren ez lidin uzatu
badanik bere bertan eben
zerbait lizana somadu

Izurrariau baekidan
sentidu baga askatu
guztizko uzkar terrible bat
nik banegion pulkatu

Esesan negion ene laztana
ez onegaiti penadu
zegaiti orain zu ta ni gara
biok igual geratu

18.— ORAIN JAIO DALA NUESTRA SALVACIÓN

Barri onak dakart
Peritxo y Anton
orain jaio dala
nuestra salvación

Guztiok genbilzela
en nuestro ganado
oi etorri jaku
un ángel volando
esan deusku gero
aquesta canción
orain jaio dala
nuestra salvación

Barria genzuanean
el ato dejamos
guztiok alkarrégaz
y a Belén llegamos
ainbat gauza egoan
de admiración
jaio zan lekuan
nuestra salvación

19.— MONESTERIO SANTU DEBOTOA

1

Monesterio santu debotoa
jaunaren graziaz eben jarria
ese prenzipala eta barria

2

Basoan zu zaoza fundadua
eta il zan arren fundadorea
bakus munduak zure balorea

3

Zegaiti zu zara dubdadu baga
korridu badidi ondo mundua
beste guzietan estimadua

4

Oñ esku zardenok apazen diot
illustre abbadesa notadea
zerren egin deustan mesedea

5

Ni kaso naxala baldin badator
euroen artera tentazioa
bertati eske nax parkazioa

5

Konbento guztia generalmente
saludazen dot nik agur eginda
belauriko barriz zu ene linda?

6

Abisada eder parebagea
eztakart gorgera eztaust gona
ekusi nagi ze ni ona ona

7

Monjea kausa dala kokotean
enamoraduak ze begi azik
zerren monje aenak eztau gazik

8

Ai ai ai ai ai ai ai ai ai
ai ai ai ai ai dardo zorroza
zein triste dagoan ene bioza

9

alegere dago isas aldean
uda ta negu beti naranjea
monesterioan tristea monjea

10

Esen badagie eztaozeela
alegere baxe sekula triste
nik diok egun dala aratixte

11

Zegaiti monjea inox eztago
baize au edo ori pensaetan
beti bere koitaen arilketa

12

Jaiorean ninzan desditzadea
zerren aita neben guztiz gogorra
senideak labur ama leorra

13

Ene senideak libre daoza
gozazen dabela libertadea
ni nago katigu subjetadea

14

Zilegi dabela euren senarraz
iragaiten gustosoro bizia
nik ez bai esateko lizenzia

15

Adata zanean bere senarrak
bere beso laztanaz estaldurik
nik jagi bear oi dot ozak ilik

16

Gaztea sartu ninzan sentizaka
andi arzaite neben engaňua
bizi nax bizi guztiz estraňua

17

Kontentu baga dakuet ditudala
neure urte dulzeak kastaetan
loturik nagoala olzoetan

18

Isi jazun bada sekulareko
karzel gogor onetako ateak
ai ai ene narru zuri gazteak

19

Ama libreaganik jaio ninzan
ditxarik ez nebenau alabea
dirurren saldu ninzan esklabea

20

Neure aragiok dakustanean
zein zarden direan eskutxoetan
berti jasarte nax eresketan

21

Amore dulzearen ardurea
zeinbat dodan probadu gutxiago
ainbat irudizen jat dulzeago

22

Kanpuan oba leuke atxur zala
izango baleu bere beti presa
mila monjaren baño abadesa

23

Kontentuago dagoalakoa
gaaten dabela basallorea
eperki janik baño priorea

24

Zerren beti bere da arinago
borondatez nekea egitea
baiño bere posa asedetea

25

Orain dator fraile malmaz arro bat
atxakiz arturika bisitea
onagaz dakarrela agintea

26

Erabilten gaitu ilabetean
bere tripearenzat errastruan
geur barriz tiri taio konbentuan

27

Arenzat eperra bardin al bada
ez gorri tantarik baize zuria
aumarik badogu ez azuria

28

Konbenturik konbentu dabilela
or ase eben bete bigardoa
mutil mando bota ta tabardoa

29

Niri barriz zerren negian berba
neure aide jabe prenzipal batez
deo graziaz zu azota zatez

30

IPOCHRITA vellaco riguroso
soberbio regalon y desonesto
jauna barka zakezt si peco en esto

20.— MUNDU GUZTIAN ORAIN EZ DAGO

Mundu guztian orain ez dago
gizon kontentuagorik
oita nola ni orain nagoan
zeruko jaunak gurarik
zazpigarren ilabetean
urteje onau sarturik
iru egun kunplidu baga
oi setienbrek emunik
zeña zan egun alegerea
ene laztanak gurarik
ene laztanak gurarik eta
neurk ala trabajadurik
amore poderosoa jauna
asko deusut eskerrik
zu serbizeko ez jat faltako
sekula borondaterik
denpora baten lotu ninduzun
katea fortiz batekin
jaun zerukoa alabadu ze
orain banago librerik

donzellatxo bat ekusi neben
lindea parebagarik
oi neure bioz amorosoau
idogi zidan bertati
neuregaz neben libertadea
eroan zidan berekin
ni aren minez ilte ninzan da
a beti alegererik
nik aregaiti iragar dot
munduan asko penarik
ark enegaiti oi oraingaño
eztau edugi ansirik
oi orain barriz nik ifini dot
bera kateaz loturik
oi bada bere nik aregana
asko dot borondaterik
ez dakizunok jakin egizu
ze kaoz enganadurik
zerren dama bat serbietako
asko bear da gauzarik
amoraduak zer bear daben
banago irakasirik
oi enzuzu ta jakin dagizun
badozu borondaterik

zegaiti askok jakin ez arren
egon oi da tristerik
irakasterren ez nago eske
bapere intereserik
oi lenaengo abantajea
dasadan zaoz exilik
jentil honbre oita bear dau
izango badau ditxarik
utra galanto ebili bidi
oi badau potestaderik
bere aoa ifini begi
palabra dulzez beterik
bere laztanaz ze beuzaike
sekula fantasiarik
oi barriz kunpliduko ez badau
ze begi alfer promesik
krueldaderik baderakuso
beoke beti tristerik
dameak gaxki esanagaiti
ez galdu esperanzarik
iñor begira dagoanean
ze beikeo berbarik
utra dulzero esan begio
bere penea exilik

presenteak emun begio
gauza usaiz beterik
oi parteta danean barriz
zuzpirioxo garrazpi-
koitarik esan oi badegio
ifini esporzadurik
polsea barriz oi berabilke
oi diruz adornadurik
erreal ori kastaetarren
ez azeratu pausorik
bere laztana dakusenean
ebeli utra graberik
sekula barriz ze besakeo
besteren abantajarik
denporeorrekin emun badagi
ez egon tentazakarik
zegaiti bera ezta ezingo
oean zabal zabalik
gabaz egunaz ze berakuske
sekula kobardiarik
laztanagana joango bada
ze beroake lagunik
bere begiak oi berabilke
laztantxoagan josirik

sekula gauza gutxiagaiti
ze begi sentimenturik
oi beazatu badagi bere
ez erakusi bildurik
oita irago ze bekikeo
bositazaka asterik
zegaiti artu ez daikean
oi beste serbidorerik
oi alkanzadu daikeano
ez artu jatin zelorik
gabaz egunaz serbidu begi
sekula asperzakarik
oi geiago gura badozu
amoraduak ikasi
estudiadu arren egizu
laztanaen borondateti
zerren bestela oita ez jazu
probetxaduko gauzarik
mundu guztian ni baño ezta
oi amoradu firmerik
ene laztanak mereszidu dau
oi asko abantajarik
a serbizerren aspertu banax
banago deskansadurik

arta lastoa agin egizu
nik al dagidan gauzarik
eguaztena ifini nauzu
obligazioz beterik

21.— EGUN BATEAN NENDORRELA

1

Egun batean nendorrela
bide estretxo batean
esku batean nekarrela
kalzaidu usez erro dela
zaldi on baten gañean

2

Banekarren esku bestean
listra onezko dardoa
adarga on bat arzoean
arnes fortiza gorpuzean
korazaakaz kaskoa

3

Konpaniazat tristurea
askotan legez arturik
giazat barriz benturea
baneroean etxurea
txitez guztiau galdurik

4

Neroeala forma onetan
biozau guztiz tristea
nik ez nebela pensaetan
gero nekusen gauzaetan
erratu neben bidea

5

Ribera baten eldu ninzan
guztizko alegerea
neure buruau gora nezan
dama eder bat topa nezan
autoridadez betea

6

Neurau exilik nengoala
berak esadan berbea
ongi etorri zareala
errazoa da dasadala
gizon armatu gaztea

7

Nungo zarean esadazu
bada al didin gauzea
zeure begiok irekazu
deskubridurik afindazu
apelliduaz nonbrea

8

Ezeren losa bildur baga
esazu zeure benturea
zer gaxaesun kontxallaga
zeren dizudan bereala
kuraetako rezetea

9

Nik diosudan berbaetan
duda efinten badozu
ni ez banauzu sinisketan
bizi zarean egunetan
zuk beti damuko dozu

10

Ribera artan neskaoa
bakotxik nekusenean
razonamentu dulzeoa
forma artan da alakoa
ain laster egidanean

11

Neure begiok banegian
aregan laster fixadu
nun eldu ninzan ez nekian
aren ederrak benengian
konsoladu ta turbadu

12

Terziopelo berdez egoan
gorpuz guztian janzirik
leona baten kostadoan
jarririk legez baegoan
kristalez koronadurik

13

Arpa eder bat esku bietan
figuraz eskulpidurik
urregorrizko tablaetan
biboratxo bat bularretan
kollare legez janzirik

14

Apea nindin zaldirean
gutxi bat apartadurik
berba negion lurrerean
neurau nengoan lekurean
reberenzia jakinik

15

Umillardurik egiten dot
errazoa dan gauzea
oñ eskuetan besazen dot
dakidan legez esaten dot
donzella koronadea

16

Obedeszu dagidala
nik zure mandamentua
errazoa da naturala
neure aoaz dasadala
itaundu jatan kasua

17

Jagi zan bere sillarean
nik au esanda bertati
artu ninduan eskurean
bagioanzen arerean
floresta baten erditi

18

Jarri ginean berbaetan
rosale baten parean
asi ninzakan kontatetan
nola ninduen penaetan
gauza bik biozerean

23.— ENE LAZTANA ENE LINDEA

Ene laztana ene lindea
banago beti gaxorik
ene negarrau enzun egizu
badozu borondaterik
zeure bioza bera bekizu
badozu piedaderik
oi ni onela penaetan
ez dozu errazoarik
ni zugaz amoraduagaiti
eztaukat nik bearrik
zegaiti ene eskuan ez zan
egiten beste gauzarik
neure bioza or dauzazu
ondo kateaz loturik
libertadea aregaz dago
ni barriz beti bakarrik
pensamentua daukadala
zuregan enklabadurik
neurgaz sekula egiten ez dot
zuregaz baxe konturik

zuk barriz nigaz ez daukazu
bapere memoriarik
sekula oita ez badeusut
egiten serbiziorik
kausaetan dau ez jakiteak
zure gogoko barririk
bestela bere nigan ez dago
zurea ez dan gauzarik
zure izenaz oita daukat
guztiak senaladurik
zugana deudan amorioak
oi iñon ez dau kaburik
oi zugan barriz piedadeak
sekula komienzurik
linda damea erruki nauka
ez dodan gero kulparik
zu lakoagan ez leuke bear
krueldadeak parterik
amoreorrek egin ez oi dau
kurelez konfradiarik
oi zuk ni ondo trataetako
asko da nigan kausarik
amore poderosoa jauna
ni belauriko jarririk

mesede baten eske nagozu
ez bea jako berbarik
damatxo baten amore minak
narabil desterradurik
ene biozau a serbizeko
jarri zan obligadurik
sekula ondo arzaiten eztau
oi nik desodan gauzarik
sekula goardaetan eztau
oi zure mandamenduturik
estimaetan ezertan eztau
oi zure serbizaririk
onetan zuri ekiten jazu
oi asko agrabiorik
dama kurelau arren efinzu
oi ondo gaztigaturik
sekula bestek oi eztagian
artu atrebimenturik
konjuro gogor pare baga bat
daukat ordenadurik
otorgaduko deustazula
asko deut esperanzarik
asi gura dot zuregan jauna
oi baiez konfiadurik

ene perlea enzun egizu
badezu borondaterik
zure entendimentua bego
gutxitan irazarrik

Conjuro

Tortolatxoa ebilten da
bakotxik maiaz ilean
bere laguna galdu jakinda
tristerik soledadean
konjuraetan oi eta zaitut
kurela poridadean
gabaz egunaz oi zabilzela
negarrez ene azean
unikornio animal fortiz
animaloen artean
naturalezaz umillazen da
damarik dakusenean
konjuraetan oi eta zaitut
oean zauzidenean
gogaberatu zakezkedala
begioz nakusunean

Prosigue

Konjuraetan oita deuzut
gorpuzeango aragiok
nigana manso bakarkezula
zeure begitxo linda biok

Prosigue

Pelikanoak amorioz
umeak dagianeau
bere odolaz mantenizen dau
guztiak azi artean
konjuraetan zaitut laztan
niga borz nabilean
zeure bularrok jan dagizula
zeurgana sartu artean

24.— ZEGAITI BEGIRATU GURA EZ DOZU

1

Zegaiti begiratu gura ez dozu
zugaiti nola nagoan kantaetaz
biozau jo deustazu anetx fletxaz
nigaz konturik egin nai ez dozu
begira egizu zer egiten dozun
nuen kontrata nola oita zabilzen
amoreak zer deusan zuri aginzen
belarriok irekazu eta danzuzun

2

Donzella guztioi deustet aginketan
dagiela amoraduok ondo artu
onegaz linda guztiok beukae kontu
zerren joango nax neurau eskaetan
kurela ifiniko dot estuetan
baldin da mandamentuau goarda ez badez
nik au erraz daiket neure partez
asi banadi amorez konbatietan

3

Amoreak enzun dozuene laztana
oi bere mandamentuan zer dioan
apa bat baneidizu ao gozoan
bakusu ene fedea firmea dana
donzellea arren egizu ene esana
zegaiti zuk ez dozu ezer galduko
neure bizian ez zaut anxituko
zurezat izango da nik dodana

4

Zu zara eder guztioen capitana
zeruko irargi zuria dirudizu
ene guztiau zeure egin egizu
inor baño ederrago zareana
libertadeau joan jatan zuregana
ni bizi izaatea zure eskuan dago
remedioaren esperanzas beti nago
zeña bakit larrosatxoa zugan dana

5

Espantadurik nago donzellea
bioz oi nola dozu orrein kurela
tratadu ze nagizu beti onela
enzuzu dama guztioen estrellea
gura dot relajadu kerellea
osatu ene llageau nai badozu
larrosa maiazekoa nola dozu
enezat orrein gogor murallea

6

Donzellea piadadez ar nazazu
barriz gura deusat erregutu
katea geiagogaz ez ni lotu
neure biozau libre jafindazu
biurtu libertadea egidazu
alegeratu didin ene gogoa
zu serbizeko andi dot deseoa
aldi bat zeure besoan narazazu

7

Ediraiten eztau inork munduan
zu lako donzella bat ain lindarik
sekula jaio ez da amoradurik
ni duin firmerik ene lekuan
enegaz jarri zatez partiduan
zegaiti onezkero da denporea
berba bat egidazu traidorea
plazaz edo bestela estalduan

8

Nigana zaozela dirudizu
enojadarik beti kausa baga
askotan egote nax berba baga
orein edolabere ze nafinzu
aldi bat perla lindea egin egizu
nigaz ordu bakox bat kunplidua
zu zara ene begioen esphilua
azkero zeure eskuogaz il nagizu

9

Jaunorrek ez dindala ondasunik
gogoau baldin badot bestegana
orrein kruel izaten enegana
nik mereszidu ez dot zureganik
sekula nik ez oi dot beste lanik
onela iragaiten jat gau egunak
ain diraene begiok elzaidunak
zugana laster doaz eneganik

10

Beti begira nago zuregana
ezin azartu nax ezer esaten
kontentu deskontentuak puntu baten
laster etorten dira enegana
badozu zeure gogoa bestegana
alferrik engaña du ze nagizu
zeure gogoko barria esan egizu
ikasi nik dagidan zugan dana

11

Parerik eztozuna al dakizu
guztioen gañetiko larrosea
eguzki ederraren esposea
agaiti zuk onela narabilzu
kundizio kurelok nai bekizu
onezkero zeурganik ken zaitea
beraro ar nazazu traidorea
edo bestela noxbait il nagizu

12

Donzellea zuk banozu sentietan
sentizen zaitut bai zeurori bere
zuk banazauzu ni bai nik zu bere
zuk nik legez nik zu zaut adietan
ze gabilzaden beti puntueta
dagigun konbersadu alkargaz
zu nigaz konfesadu ni zuregaz
alkar darazagula besoetan

13

Nik negar dagidanean zu zaoz barrez
nik barre dagidanean zu tristerik
banago zure aldean jasarririk
izuten dozu buruoi grabedadez
berbarik badegizut poridadez
gogorrik jarten zara bereala
askota zu bazina pedernala
edo ni sufrizeko baninzatxez

14

Neskea zara zu ta ni gizona
zuk legez ditut nik narru zuriak
zuk bere bai ni legez aragiak
zuk legez ni bere dot gorpuz ona
narabilzuna legez orra ona
axeak oi darabil beletea
zarean esadazu donzellea
kastaz benturaetan amazona

Amorea da onako ez dakit zer bat
etorten da arago eztakit nundi
eztakit nola biozean sarzaite da
zuk agin dagizuna egiteko
dudazen badozu ene laztana
asko da ditxoso desditxaetan
nik ain on baneu bozau kantazeko
padeszietan dodan doloreak

26.— AITAK EZKONDU EZPANAGI

1

Jaio azkero serbidu deut
ezkondu nagi onezker
ezkonketako edadea deut
ogei urtean elduzker
zorigaxtoan jaio ninzan
ezkondu baga il banadi
aitak ezkondu ezpanagi
neurauni ezkonduko nax sarri

2

Gau egunetan beti nago
esekoakin deadarrez
senar gureak oita nago
esekoxeok beti barrez
oraingaño gaztea ax ta
urtexe baten goza adi
aitak ezkondu ezpanagi
neurauni ezkonduko nax sarri

3

Oi nolako atrenpea
darabildan ankaetan
banekike goruetan
gonearekin atorrea
saldu neike gorgerea
aregaz ezer al banegi
aitak ezkondu

4

Ain egin jat az andia
neure zilonen artezean
jarri banadi sugatean
beroetan jat iturria
egingo jat minoria
remediadu ezpanadi
aitak ezkondu ezpanagi

5

Nun bere baita asko dago
enetako dolorerik
ezta munduan morroerik
nork desakedan nola ago
orazio ta beti nago
osoak aita jan balegi
aitak ezkondu ezpanagi

6

Zerenzat deut lau bost gona
ez aseginik arzaiteko
gura dodana egiteko
ebilikox nax orra ona
artuko deut koipe ona
denporatan el banadi / aitak /

7

Lege baliz eskaetan
amorosari lanzetea
banikeo nik aurraldea
(Ezabatuta) eskuetan
ukabila musuetan
izorra ezpanaagi
aitak ezkondu ezpanagi

8

Neurau baño nor? ete da
ederrago donzellarrak
mutil gose on gurarik
mundu guztian ez ete da
banzito bati berba
palagadu al banegi
aitak ezkondu ezpanagi

28.— AIN ON EMUN BALEUST KANTAZEKO

1

Ain on emun baleust kantazeko
bozau naturalezaz bentureak
nola emun eustan amoreak
borondateau dama serbizeko
edo nik izan baneu sufrizeko
gatxoek biozau ainbat zabala
zein dodan buruan bena liberala
edozein kantaeta trobazeko

2

Bataz esango neuke doloreak
bakotxik nenbilela illunetan
dulzero nituala biderketan
zugana kexaak eta klamoreak
artu nengianean kolereak
zure amorearren penazeko
podere baneukaike tenplazeko
neure begi beraoen alboreak

2 bis

Ni nax izen onegaz firmaetan
zurea izan nax izan da izango
zu nungo zarean ni bereango
eztot nik sobrenonbreau mudaetan
beti nax jaio azkero bilaetan
gauzea nola al zaidan kontentadu
ezertan nik bazaitut enojadu
nagozu sekulako penaetan

3

bada bere ditxaz desditxadua
jaio bide ninzan ain temporatan
zeinaz benturea joaki jatan
sekulako nigaz despedidua
enezat faltadu zan kontentua
enezat faltadu zan asegina
enezat faltadu zan alegina
enezat faltadu zan esporzua

4

Ene bearra da ezta zurea
neurk konfesazen dot au alaclara
zerren biur ez nezan txaolara
neure begi luze ekusgurea
bada bere ditxoso tenporea
ditxoso begiak ditxoso oñak
ditxoso burua ditxoso soñak
ditxoso artu neben banderea

5

Ditxoso eguna nox galdu ninzan
ain gauza andia irabazteko
ditxoso lutua sarri jazteko
ditxoso puntuaz zeinaz il ninzan
ditxoso bioza zeina jarri zan
zuregan ain ondo enklabadua
ditxoso ni lako amoradua
zegaiti gararrilean jaio ninzan

Ditxoso zuregaiti ilten dana
ni legez bizi dala penaetan
determinadu baga rendietan
zugaiti kruel dala beregana
ditxoso ni nolako kapitana
ditxosa zu lako arerioa
ditxoso ni lako arrilleroa
zerren asesta nezan zuregana

29.— NIK LANZETEAZ JO DIAT ETA

Denpora baten izan ninzan
amore minez tentadua
donzella batek edegi zidan
oi neure bioz koitadua
egun askotan nik egin nagon
modu askotan erregua
arren osatu nengiala
al izan gero medikua
errespuesta emaiten zidan
lizala neska onestua
aita amaak likeoela
berebiziko afrontua
ni barriz gizon desditzaduau
bizi nax bizi penadua
egun batean artu neben
neure ballesta armatua
zagita zorroz bat ifini nagon
berar gaxtoaz gantxitua
laztanagana oi izan ninzan
us egin baga giadua

kamaraetan idoro neben
santua legez pintadua
neure aoau ifini neden
palabra dulzez gantxitua
bere zenzuna ifini nagon
promesa askoz pobladu
neure aragi gaxtoaganik
izan ninzan ni tentadua
ezin sufridu neikean
biziagati tormentua
pena artarik askatu nau ta
bizi nax bizi kontentua
Donostiako San Franziskuan
agoan gizon soldadua
donzelleoni egin jazak
izta ondoan anditua
nik lanzeteaz jo diat eta
oi ik ezarrok enplastua

31.— NI BADA ILGO NAX FORMA ONETAN

Ni bada ilgo nax forma onetan
zuk bada egizu gura dozuna
mundu guztiak dakus dakusuna
ni zugaiti naxana gastaetan
alfer ifini naizu purgaetan
ozpin barakazetan sekulako
ez deraustae besterik aterako
salbo bai zaitudala amaetan

Garia pagazen da diruagaz
dirua bere bai beste gauzakin
bada bere ezta amoreakin
amorez baize jarri igoalaz
nik laztan bazaitut agaz beragaz
pagatu bear dozu zeure zorra
tenplazen dozula bioz gogorra
amore jaunaren prezetuagaz

32.— JAUN ZERUKOAI EMAITEN JAGOT

Jaun zerukoai emaiten jagot
oi asko geraziarik
deseo neben okasio bat
zerren nagoan jakinik
nik orain diot inox ez zala
ipui zarrik guzurrik
zegaiti gauza eginik ezta
munduan sekretokorik
nik au onela esaterako
asko da errazoarik
oi geiago zufrietako
eztot nik pazenziarik
poeta gazte jakinduna
ze zaoz engaÑadurik
zu pagazeko faltako dala
nigan entendimenturik
egin dozuna egiterako
ez dozu errazoarik
zerren nik zuri eman eztizut
artako okasiorik

ez geiago nik egin ez dot
zure basoan egurrik
sekula barriz nik ez negian
oi zure kontra berbarik
obra barri bat ei daukauzu
nigaiti konponidurik
linda damea asko deusut
nik aregaiti eskerik
mesedeori serbietako
eztot nik intereserik
orretan bertan oi bear dozu
geratu satisfetxarik
onin batenaz adi nazazu
badozu sentimenturik
zure entendimentua bego
gutxitan irazarrik
bere burua oi bear leuke
efini korrejidurik
lenango ta gero juzgadu
bestegan baliz tatxarik
edo izanagaiti bere
eugi enkubridurik
au egiteka zugan asko da
dama galanta kausarik

zuri egiten ez jazun gero
ezertan agrabiorik
errazoarik ez daukazu
niri ifinten koplarik
ene kapea ojal ona da
neure diruak kostarik
iñoenari ezteusala
bapere inbidiarik
ene kapaak egon doaz
ain ondo toleztadurik
nola bazuen saboianea
gauza usaiz beterik
oita kapa bat emunagaiti
ez nax geratu piloxik
inori emun bajagot bere
ez nago damu jakinik
ene erriti oita zurera
badago bidazidorrik
oi aetati paseazeko
eztot ardura lagunik
bide artati iramo badot
zure kalera gezirik
ene laztana oi utra dago
galanto enpleadurik

zure lekuan ederra nor dan
zeur ezpazara ez dakit
zegaiti inor ederra dala
gurean ez da famarik
linda damea ni neurau nago
galanto informadurik
zure lekuan ez oi dala
ederrez konfradiarik
donzella eder juzgaetako
asko bear da gauzarik
onestidade parebagea
fundamentuzat arturik
mal pekado frutaau dago
lekuorretan galdurik
limosneraok salzaen dabe
lekuan beste frutarik
onin batenaz egon gura dot
aldionetan exilik
zegaiti arren eztit emaiten
igitaiak lekurik
bada nipere jarri badagit
sekula barriz koplarik
poeta gazte doña Elena
ez nax egongo exilik

au nik onela esaterako
asko dot errazoarik
berorren serbizaria nax ta
ez niri barriz burlarik

33.— AIDE ANDIOK BIDALDU DEUSTAE

Aide andiok bidaldu deustae
eskrebidurik kartea
ezkondu gura nindukeela
ene gogoko tristea
oi eta bardin onela bada
andia jatort kaltea
zegaiti bein ezkonduzkero
galdu dot libertadea
onein batenaz oi kenduko jat
amoraduen nonbrea
eragoziko deraustae
damaok serbietea
akordaduko sekula ez jat
kalean paseazea
astirik barriz ez dot izango
zear ifinten gorrea
gabetan barriz ez jagot joko
laztanai biguelea
ez geiago oneretxiae
bentanarean flautea

debekatuko oi deustae
ari egiten apea
ez geiago ez jagot joko
kontereagaz atea
erraz daoke azkero geldi
oi ene erodelea
arkaan barriz erraz dafinket
malla finezko kotea
oi eztot zerren azkero janzi
seda finozko kalzea
ez geiago aren ganean
zapata kutxilladea
oi arrezkero nik ez dot zerren
estudiadu danzea
ez geiago dekoror jakin
pabaneagaz bajea
ondasunoek galdu badagit
semea ditxabagea
erruki nauzu neure aideak
zegaiti nax ni gaztea
oi oraingaño ez nax ni eldu
oi bada ogei urtean
oi eta barriz andiegi da
ezkonduaren kargea

bertati dakar gizonaenzat
ardurea ta plagea
enzuzu eta dirakasudan
ezkonduaren dotea
ezkondu eta lenaengoa
ona dau ilabetea
badanik bere bertati dauko
kargutan aziendea
berandu ezin eta gox jagi
iruli sarri oean
pensamentua darabilela
leku askotan fedea
pobrean bada zegaiti eztau
zegaz sustendu honrea
askotan estu oi bearko dau
errelleagaz goldea
izerdi orio franko bear dau
oi bere bular artean
maira datorrenean barriz
baba zigorrez saldea
zazpi librako tremes andia
faisaezat aldean
ardao zuri San Martingoa
pitxerraz iturriarean

ume txikik oi eta badau
azaiketako losea
aziazkerotzko ezkonketako
[...]idago polsea
pobreonenzat oi gatxik asko
aberasonek doblea
mutil neskatoz lenaengoa
bete bear dau esea
oi eta aen gobernazeko
bear dau andi manea
pausorik asko egin bea dau
sustentazeko plazea
kontu andia bear dau egin
ez erorteko area
emazteori ona ezpadau
esean erriertea
alkar aditu ezpadagie
ez dabil ondo esea
kapelaetan darabiltela
beti aragi errea
aragionen jaaterako
asekabazko salsea
abenietan badira bere
ezta fatako kargea

interesean beti darabil
gizonak borondatea
ama askoren seme askogaz
bear dau batu urtean
ordu askotan oita bear dau
iregi bere polsea
semrik badeu esaten jago
aita egidak jakea
ari jakea egin orduko
alabeorrek gonea
oi ainbat dazust lazeria ze
eraetan jat fedea
oni aparta al dagiona
ditxa onezko semea
edolabere urten artean
ogeta amar urtean
neuronek ala egin gura dot
bizi al baninz artean
jaun zerukoak arren dindala
kunplietako ditxea
nigaz ezkondu gura dabena
sosega bidi bakean
oi onegaiti itxaden begi
dozenaxe bat urtean

artean barriz goza dezadan
oraingo libertadea
oi oni luze deretxanori
ze bego ene ustean
oi nitaukautat emazte on bat
zeña dan ama andrea
jaun zerukoak oni demala
bizi ona ta luzea
zegaiti onek sustenduko nau
egunean da gabean
gradu andian jarirrik nago
ene egi ta fedea
oi orain ez letorket ondo
arreanik jastea
orain dama bat serbietan dot
lindea parebagea
oi eztauko mereszidurik
niganik anzietea
egin deustan mesedeak
serbidu jatin artean
zegaiti nei traspasadu
amorearen legea
oraindo beti izan nax
oi amoradu firmea

orain ez neuke errazoarik
izenau borraetea
ez geiago gazta zaroau
ain laster anzietea
klaramente dakustan gero
galzaite libertadea
ezkonduzkerro probetxaetan
oi ezta damuketa
uztarriori ezarrizkerro
sufridu bear goldea
orapilagaz lotu azkero
neke da askaetea
gauza fortiza oi dana bakust
ezkonduaren kargea
karga andia sufrietako
oraindo nax gaztea
azaiteau galdu lerait
ardura usazakeak
ene aginok ezin jan leie
aragi erre bagea
estomagoau galdu leiket
bianda probazakeak
oean kalentureak liket
lagunik baneu aldean

laster batean oi lirazueket
beste mundura bidea
gauza sakona bide da izan
isaso ondar bagea
neure buruau ez nei ondo
andratan konfiazea
ene aideak oi arren au da
neuronen respuetea
akordaetan ez dodala
ain laster ezkonketea

34.— DITXA BAGEAU JOAN NINZAN

Ditxa bageau joan ninzan
ezer baga eskuetan
esaiorrez
topa nindin gradaetan
legoala
ballesta bat armaetan
traidorea zer da onela
zer egin deuk jauregietan
eiz ona
itxi dinat menaetan
igo eginda
asi adi mozietan
ni banajoa
salsearen aurkietan
ez al deustak
baldin egia kontaetan
igo egin laster eze
eurk dakusken erietan
igo neben
bista bga begietan

neure jaunak baesadan
nora zatoz penaetan
ene jauna zer diostazu
zer daukazu bularretan
zagita bat eben daukat
azarri ez nax tiraetan
konfesorea
bekardae lasterretan
ene jauna
jarri zatez sillaetan
nork egian kolpeori
zure aragi ederretan
Garzilasok ene andrea
nengoala menaetan
bigueleaz
kanzio baten kantaetan
il banadi
nik deusat parkaetan
bizi banax
jakingo deut bengaetan
au esanda
il ekidan eskuetan
andra ditxa bageau barriz
sei ilekoaz maiaetan

ene esai traidorea
pozik kalza juponetan
tristea nengoan
iru ileko egunetan
asekaba garraz asko
oi nebela sufriean
sabelekoaz
ez ninzala gozaetan
senar baga
jarri ninzan belaunetan
amaeka ilabete
neure jauna goza nezan
ala andrea ditxa baga
sortu bazan neskaetan
zerren il ez ete ninzan
jaio ninzan egunetan
seme batez erdi ninzan
digna ez ninzan gozaetan
ilabete ez egian
ama bereaen ugazetan
arrezkero ene semea
eztakust neure begietan
ondo uste dot galdu zala
isasoaren ondarretan

Garzilaso traidoreak
agindu eben undaetan
az txikirra biozagaz
lekarroela señaletan
gumutatu ez lekion
bere aita eskaetan
ala bada eroan eben
mandamentua kunplietan
aide baga bakox nago
desditxadeau eresketa
gizon batek or daroa
inozentea besoetan
isasaldea beera doa
bere buruaz berbaetan
il agidala
jaunak jaustak aginketan
bioza ta az txikirra
daroadala señaletan
inozentea damu diat
ain gatx andia obraetan
borondate jaukaat
al badagit salbaetan
bere begiak erazala
(Irakurtezina) negarretan

gizon onau baegoan
zer leikean pensaetan
txakurtxo bat an eldu zan
ur aldeti eizketan
gizon onak dei eginda
lotu eben gibeletan
atera deuso biozori
gorde dau kalzamudoetan
inozentea
efini dau lau azetan
lotu deuso eskutxoa
ust eztidin odoletan
estali dau seitxoa
arrai bazuen kontxaetan
Garzilasok esan eusan
senaleagaz kunplietan
az txikirra biozagaz
emun deuso eskuetan
utra kontenturik dago
forma onetan berbaetan

35.— EGUN BATEAN SARTU NINZAN

Egun batean sartu ninzan
billa on baten bakarrik
amorearen min berarraz
ondo deskuidadurik
pensamentua ez neukala
nik agan okupadurik
aen podere andiagaz
ez nedukala konturik
seguro ustez ez nioean
bapere prebenidurik
neure begiok neroeala
librero desplegadurik
traidoreonen redeagaz
ez neben memoriarik
uste dot eze ninoeala
lo ze ez irazarririk
bizi niznala uste neben
arduraba librerik
neure buruau banedukan
zaarzat jubiladurik

tempora baten amoreorrek
bazugaz konsultadurik
bere korteti ni baninduan
ezarri desterradurik
ala ni bada egun azkero
nengoan despedidurik
uste ez neben izango zala
sekula amistaderik
egin eusten agrabioa
amoreonek ezaunik

36.— OI GIZON BATEK ERREGE BALEU ENOJADU

Aquí comienza un tratado de lo que verdaderamente aconteszerá antes y el día del temeroso juicio y el galardón y premio que los buenos y los malos han de rescebir según sus obras compuesto por Lazarraga sometido al gremio y corresción de la Santa Madre Iglesia arrimado a la fe y al mejor juicio

Invocación a la madre de Dios

Oi gizon batek
errege baleu enojadu
enojaduta
asko maneraz afrontadu
itaunketan dot
oi leikean azertadu
atrebimentuz
oi balekio arrimadu
nik ez neike

al egiala konsejadu
zerren leike
oita bertati kondenadu
badanik bere
amea baleu ain onradu
onrada eta
bere semeaz konzertadu
oita zeñari
semeak leion otorgadu
eska lekion
mesedea ta konfirmadu
banexexkeo
oi legiola umilladu
gatx egilea
andra oni ta suplikadu
bere semeari
oi legiola alkanzadu
parkazioa
zerren lebela enojadu
oita bertati
ameak leike azeptadu
erreguxear
zeñak leian prokuradu
oi legiola

seme jaunorrek otorgadu
kulpaduaren
barkazioa ta konfirmadu
bada jentea
zerren daigun atajadu
esan dogunau
arren daigun aklaradu
jakin egizu
oita dogula enojadu
jaun zerukoa
zerren ditugu kebrantadu
oi mandamentu
santuak eta traspasadu
zegaiti dogun
pena andi mereszidu
infernuetan
daoz zuenzat grilluak
zerren deustazun
oi ausi mandamentuak
oi laster zoaz
gaxto deskomulgaduak
ez indan jaate
oita nengusun orduan
nola nengoan

goseak ilik munduan
ez ze egidan
surik oz ninzan orduan
oi ez ninduzun
ai rekojidu neguan
gaxo ninzala
ez nindukazun kontuan
ez geiago
katigu nenzan lekuan
esango dabe
kondenaduak orduan
oi nox zenbilzen
orrinbat gatxez munduan
eldu ez zara
guek geonzen lekuan
exilik zaoz
eranzungo dau orduan
jaun zerukoak
oi au desoen puntuan
akorda zatez
oi eta zarriz kontuan
zin bat joazen
ebili pobre munduan
goseak ilik

ozak bere bai kanpuan
oi zuetara
joan joazen orduan
limosna eske
jaungoikoaren kontuan
zuek oegaz
oi kontu gitxi orduan
orain zaoza
gumuta dezun lekuan
zuelakoak
egon doazen moduan
utra gaxtoto
bizi zinean munduan
ataidea
ez zeukala kontuan
ene gauzarik
ez zeukala buruan
beti zeonzen
Satanasekin jokuan
pensamentuok
ifini baga zeruan
traspasadurik
oi ene mandamentak
oi debozio

gutxi zeukan tenpluan
sazerdoteak
meza esate orduan
ez geiago
predikaeta orduan
oi zuen gatxok
utra dakust nik klaruan
zoaz da zarriz
infernuaren zoruan
finik izango
ez dabentzientuan
ernegaduko
dabe gaxtoak orduan
enjendraduta
jaio zirean puntuaz
egingo dabe
oita onela llantuak
ernegazen dot
oi konfesore juduaz
zerren ninduzun
oi asolbidu orduan
oi egin baga
penitencia munduan
oi konfesore

kondenaduak orduan
eranzungo dau
oi au danzuan puntuan
ernegazen dot
zugaz madarikatua
zerren ninduan
zuk engañadu tenpluan
on izango nax
esan zeustan orduan
eongo dira
onela kondenaduak
sekularekoz
finik ez daben lekuan
oi onak barriz
beti kontentamentuan
zerren deuste
jaunak esango orduan
oi zatoz zatoz
neuronen eskojiduak
jasarri zatez
padarisuko reñuan
zeña dagoan
zuenzat asinadua
oi zerren nauzun

beti eugi kontuan
oita munduan
bizi zinean orduan
kunplidu dozu
oi ondo mandamentuak
goza nazazu
neure aitaren tronuan
oita goazen
ene bedeikatuak
joango dira
onak norbere kontuan
jarriko dira
angeruakin zeruan

37.— NAI EKION NIK AREN KONTRA

Nai ekion nik aren kontra
oi ez nedukan kexarik
ez eben gura nik aren kausaz
egin negian negarrik
ekusen gero ez neukana
ezertan bere bearrik
bere kriadu leialaz nola
a nizaz akordadurik
dei egin zidan neure izenaz
neurk baize sentizakarik
zu nundi zabilz amoradua
bakotx deskonsoladurik
ene kabaña realerean
ala deskarriadurik
gora ezazu zeure begiok
badozu sentimenturik
amorea naiz eta nakusu
baldin badozu begirik
nik berbaoek nenzuanean
andiro admiradurik

txapez lurrean efini neben
belaunok umilladurik
eskuaz sonbreroa kenduta
buruau inklinadurik
neure begiok goratu neben
bildurra posponidurik
ekusi neben otoi zuri bat
zagitzaz ingiraturik

38.— ELEXA SANTA DEBOTA BAT DA

Elexa santa debota bat da
monezterio barria
relijiosaz beterik dago
barru aldeti guztia
San Bernardoren abitoa
ojal balza ta zuria
egiten dabe utra santaro
barruan penitenzia
jaun zerukoak emunik dabe
partikulare grazia
eurak dakite kuraetan
min oria ta gorria
Jan Doneanez Bautistea
zeruan santu argia
mundu guztian zelebrazen da
jaun onen eguzaria
tenporea da ebelteko
azeptoa ta garbia
bezpera artan jentez oi da
aiuntamentu andia
galai galantok ara doaz
egiten erromeria

39.— AREN ERDITAN SILLA BERDE BAT

Aren erditan silla berde bat
moraduz jaspeadurik
silla onetan baegoan
sei eder bat jarirrik
narru zuriak estalzerako
ez eben bestidurarik
tafetan gorriz oi bazedukan
begiak rebozadurik
esku batean arko galanpat
fletxeaz adreszadurik
forma onetan nik nedukala
zenzunau elebadurik
ene aldeti igaro zidin
dama bat enrizadurik
ene parean eldu eta
krianzaz komedidurik
ongi etorri zu jauna baize
ez esan beste gauzarik
neska berbea nenzuanean
txitxitez alteradurik

baxadu neben neure begiok
zeruko altureanik
donzella linda graziosea
nengoan lekureanik
debisa nezan zerbait lizana
neuregan rezeladurik
ari begira nengoala
ondo disimuladurik
izerdi batek artu ninduan
penadu ninduan bizirik
sentidu neben amorearen
arkua desarmadurik
ene bioza bazegoana
kolpeaz maltratadurik
bertati boz bat adi nezan
zeruko odei artarik
serbi nezala donzella ura
ordu bat faltazarik
eranzun nagon ni nozun gero
efinten obligadurik
donzella oni ez emun jauna
ni eraiteko armarik
eparaetan bardin bajazu
beste zagita zorrozik

onen biozau nai bekizu
efini senaladurik
erreguketan didazun gero
asko dot borondaterik
efiniko dot orren bioza
zureaz orapildurik
au esan eta amorioak
agana begiraturik
bere arkua armatu eben
amen bat beranzakarik
donzella urak ekusenean
ala determinadurik
akojidu zan sagradura
ark emun baga kolperik
ni arrezkero beti nago
amore minez gaxorik
ai ene desditzadua bada
ezpadot remediorik

40.— BERE MAKESA ATERA DAU ZORROZIK

Bere makesa
atera dau zorrozik
ebagi deuso
belaaria baterik
lanternea
eskuan eroanari
orduan jaunak
umildadez beterik
agindu eusan
ez lemala besterik
modu onetan
oita berba jakinik
sar ezak Peru
gabineteoi geldirik
bere lekuan
ze egik beste gauzarik
armaz inor il dagiak
armaz il bearko dik
Jan Done periak
ez egian besterik
sartu egian
gabinetea exilik

juduak bariz
asko eukan negarrik
zerren eusan
belaaria ebagi
jaun zerukoak
umildadez beterik
belaarria
ifini deuso osorik
oek guztiok
ortuan iragarorik
eroan eben
Kristo bera loturik
Jerusalemen
sartu da arrastradurik
asko daroae
jeduok alaridurik
jaiten dabela
asko tronpeta garrazik
euren biozak
kontentamentuz beterik
traidoreak txu egiten
deusae losa bagerik
bai geiago
ostean asko burlarik

41.— MARI LOPEZKO EDERREZA

*Canción para cantar por alguna
persona que ha murmurado*

Mari Lopezko ederreza (*Gainean*: atrebidea)
ez esan sekulan gauzik
(*Ezabatuta*: arren zaoke exilik)
baldin gura ezpadozu
ez difinzuen tatxarik
berbarik asko esan oi duzu
(*Aurrekoarekin ordezkatuta*: oi aserratu deraustazu)
ene ausenzian eginik
(*Aurrekoarekin ordezkatuta*: zeurorrek ala gurarik)
bada nik bere irabazi
(*Aurrekoarekin ordezkatuta*: baia bardin irabazi)
ez dozu gona barririk
(*Aurrekoarekin ordezkatuta*: ez dozu agaz honrarik)
zierto obato izango zan
egon bazina exilik
oi bada bere berba gureak
ez dizu emun lekurik

Luzuriagan jaio zinean
Langarikan zaoz kalterik
oi gutxiago esaterako
nik ez dot pazenziarik
berbarik asko erraz dasaket
zuk ala mereszidurik
zeure aoan dozu agiri
an ez dozuna kilzarik (*Lerro artean*: freurik?)
oi zu ederra izan ez arren
nik ez daukat bearrik
oi onegaiti gatx esalea (*Ezabatuta*: ene laztana)
ze eukakezu penarik
zerren zu (*Lerro artean*: txipi) balza izanagaiti
asko da (*Lerro artean*: galai) dama galantik
Oi Langarikan egonagaiti
ez artu soberbiarik
(*Lerro artean*: amoraduok egonagati)
ezkondu gura baldin badozu
(*Lerro artean*: estao zure)
asko daukezu senarrik
Peru errotxek asko dauko
esean seme galantik
areantxe bat oi al badozu
bila ze zatez besterik

uste badozu iñon ez dala
a ta zu lako beste bi
ipirdietan deikiozu
erraz mun biok alkarri
juramentu egiten jagot
(Lerro artean: adiketan duen guztiori)
obian dazan amari
nigan miirik badafinzu
ez egoteko exilik
(Lerro artean: ezai izanagaiti)
zerren zu ederra izanagaiti
ez dot bapere bildurrik *(Lerro artean: penarik)*
osaba jaunaz ezpazeonza
jakin egizu niganik
alogoroak oi neukala
zurezat ondo gorderik
oi aren serbizaria nax ta
ez dot esango besterik
(Lerro artean: berba dollorok gorde egizu)
oiñ eskuetan mun egiozu
ez niri barriz burlarik

42.— SALBATIERRA EGUN EI DAGO TRISTERIK

*Historia de la quema de Salbaterra
que fue a primero de agosto
del año del nacimiento del Señor 1564
compuesta por Lazarraga*

Salbaterra
egun ei dago tristerik
oita dabela
egiten asko negarrik
zerren jarri da
guztia destruidurik
ez da geratu
barruan ese galantik
zerka zabalok
jarri ei dira bakarrik
oi onezkerro
ez da merkatu bearrik
apain ze bedi
oita donzella galantik
erraz daoake

Araba lutoz janzirik
ez ara eroan
barrundiarrak frutarik
Nafarroarik
jasi ze bidi gararrik
Salbaterrarrak
ez egin barriz justarik
erraz zaozke
oi ondo gaztigaturik
jaun zerukoak
onela permitidurik
ezin esan dot
egon bear dot exilik
flakezeonen
estit emaiten lekurik
balia bekit
oi badot adiskiderik
ifini nagi
oi arren esporzadurik
konta dezadan
dolorez asko koitarik
ez dakienak
daoden abisadurik
asi gura dot

nanzuzu zaoz exilik
mila ta bosteun
urte alkarri eranzi
irurogeta
lau geiago ganeti
da jaio zala
jaun zerukoa justorik
abuztu ilak
egun bat kunplizakarik
oita jagi zan
su ori utra fortizik
Salbaterragaz
andiro enojadurik
portaleetan
komienzua arturik
oita erre dau
Jan Doneanez kalterik
kanpaak bere
txapitelegaz arturik
bobedaxeok
itxi dau eurok bakarrik
zerren ez dago
nork sokorridu jenterik
zerren eozan

izurriteaz urtenik
ifini dabe
oi eta asko penarik
komarkaetan
ara balloa gizonik
zerren eozan
larrin guztiak beterik
persona askoz
izurriagaz gaxorik
oi jente asko
egoan pare bagarik
ara begira
oi ezin sokorridurik
su ori barriz
oi beti soberbiorik
ez eukala
bapere piadaderik
izurridunak
asko eukaen llanturik
nork bereari
oi ezin kobru emunik
etorri dira
oi barri onok enzunik
komarkaetan

eozenok rekojidurik
oita lebela
egiten asko negarrik
zerren ekusten
eben guztia galdurik
galdurik eta
suorrek abrasadurik
emun al baga
bapere remediorik
al egienak
esporzuz animadurik
ateraetan
asi zirean tristerik
aziendea
dolorez kontu bagarik
andiok barriz
utra negoziadurik
euren espeak
oi ezin defendidurik
ala galdu zan
lekuau desastradurik
enparazaka
ese bat baize besterik
asko erre da

barruan joia galantik
bai geiago
oi asko arka garirik
askok dauko
bioza ondo errerik
eugiko bere
sekula osazarik
eukaiteko
asko da errazoarik
zerren egin da
oi asko kalte andirik
guraso asko
jarri da ume bagarik
umeak bere
oita guraso bagarik
asko dabilza
kureldo desterradurik
nork bere ese
apaindurean urtenik
oita dabela
ekusten asko penarik
zerren ez daukae
nun paseadu kalerik
ez geiago

erregalozko tendarik
ez geiago
alkate rejimenturik
jaunak dabela
oi asko geraziarik
bizi garean
guztiok rekojidurik
oi ez kargadu
nork bere konzenziarik
jaunak ez digun
oita gaztigu besterik
ez inor egin
<eze>r lukuru gauzarik
ez geiago
konzenziazko traturik
ez erabila
deretxo baga auzirik
eroan ustez
inori aziendarik
ze eukaikezu
iñogaz injuriarik
proximoari
ez egin agrabiorik
akorda zatez

zaoza irazarrik
Salbaterrai
ez artu soberbiarik
zerren dakusu
oi asko profeziarik
jaun zerukoak
zuri bidaldo jaginiak
adietako
badezu miramenturik
ez konsentidu
zeure lurrean gaxtorik
rejimentua
ifinzu abisadurik
ez dagiala
bide ez daben gauzarik
oi dafinela
republikea garbirik
bazterrok bere
oi ondo gobernadurik
begirauzu
ez egin beste gauzarik

43.— ZERU ZABALA OI ESTALI DA IZARREZ

Zeru zabala
oi estali da izarrez
ene begiak
asi zatez negarez
ene bioza
erdira zatez dolorez
Jerusalem
gaur bete da traidorez
jaun zerukoa
an ei dabil klamorez
saldu dabela
oi eta Judas traidorek
asper ze zatez
jentea negar egitez
ikara jabil
lau laurenok bildurez
arren nanzuzu
jaun zerukoaeen amorez
konta dezadan
pasio santua dolorez

Eguaunari
eguaunguren esanik
zeruko jauna
<jarria> zan tristerik
oi leukala
asko pensamenturik
biozean da
dolerez amargurarik
zerren eukan
Judasek gaxki saldurik
judeguakin
aurraz berba eginik
ogeta amar
<monedaz saldurik>

Entregazeko
Jesukristo loturik
traidoreasak
ondo disimuladurik
afriori aurkietan
baebilen solizitorik
aurkitu eta
dei egin deuso umilik

umilik eta
lisonja askoz beterik
joan zan jauna
dizipulook arturik
afaritan
maia bedeikaturik
nun esan eusten
guztiai berba jagini
eben dago
ni naukana saldurik
eranzun eben
guztiak espantadurik
benturaetan
ez al nax bada jauna ni
neuronek baki
arren extazu exilik
jagi zidin
afaritarean tristerik
guztiai oñak garbitu eusten
bertxeak umillardurik
nun esan eusten
asko palabra dulzerik
gero joan zan
guztiai ala etxirik
amabietan
[...]kojidurik

44.— LEKU ON BAT DA ESKOZIA

De la señora Maria Estibaliz de Sasiola

Leku on bat da Eskozia
obeagoa da Beneszia
ene aldeko lagunoni
elkaenzako flakezia
nai deban orduetako
andia dakar fantasia
bosteun dukat kosta jakan
baroeoni balentia
emperadore jaunaganik
ekarizea lizenzia
eleizara juen oi naiz
egin oi det bekatu
abemaria asi baize
ezin oi det notatu
liburuan bere jari oi naiz
begi neureok lausotu
fraidia predikazen jarri
izik ezin aditu

ofrendara dianea
ondo oi det miratu
sagara gora dianeau
amore lindeaz oroitu
amore linda galantorek
gogoan oi ni banindu
lagunok baiez diostau
neuronek ezin sinistu
neuronek esin neio baia
egingo digot mandatu
arenzat jaio nizala ta
enagiala largatu
es bisteak konsolat[...]
ez egonak amorat[...]
ez maian asentatu[...]
ez oean albergatu[...]
jaun zerukoa estagik[...]
gizona onein amor[...]
laztan enea nai gara[...]
sure atean arteti
aren agun zaite[...]
sakuskedan leiotik [...]
egun artan nik ez ne[...]
munduan lizan bear

speranzeak bizi oi [...] erri onezat ateau
speranzea galdu oi dot errira natorronea[...] ene lastan zuri ederra
zure laztan ni banari kontu estua emango digozu
zeruetako jaunari munduan diran podere oro
eskuan dituanari bazinaki gogoa
lastana biozekoa [...]re minez ilgo banaiz
[...]udatu jaun zerukoa [...]more linda galant bata
[...]ne amore berria [...]ura dakustan ordu orotan
[...]rzean ur det irria [...]a estakustanea
[...]ldea malenkonia [...]gun ekusi estet eta
[...]oi ene bekataria [...]sigarika banendorren
[...]patu egun batean

[...]estanarekin enkontra nezan
[...]an Juanen aurea
[...]e iru matalotekin
[...]uza galanta joean
zazpi urtekoz ekari nau
gajoturik oea
korzierrean irte neban
bai? joean kalean
debotaro enzutera
birjinearen mezea
Madalena santea da
ene abogadea
arren emon degidala
eska nakion doea
arimakoz eta gorpuzekok
obe dedan bidea
ene laztan biozekoa
kortes enseinadea
eri onetan bestek eztu
ar oi deban librea
Franziako armak dakaz
goian eta bean
aren ekuzten etoriko naiz
lebante urrunerean

biok ondo izango gara
mundan garan artean
paradisu ereinuan
mundutik goazenean

45.— ITAI LELO I BAI LELO

Itai lelo i bai lelo
etxean arai leloa
damarika dan galantaena
Belagai Butroekoa
Belagaia dioza eta
korionean jajoa
oreanik jagi ninzan
astelen goizean
eskuetan busti eta
kalera nirteanean
ene lastan zuri ederra
berdurakin aurean
soinean gonaz ondo jazita
jurapa oria gainea
gerian gerikoa eder
solea sotil oinea
bularteria trapua zuri
labradurak urrea
donzellakin fordelizak
lepoan goienainean

donzella batek jozi zeban
Iruneko kalean
niri ondo kosta jakin
Gipuskoako lurrean
orain aldiaz aita deza[...]
Gaztelako noblezia
Burgus ta Toledo
ta Kordoba ta Sibillia
[...]ko e Rei[...]
Barzelona ta Balenzia
Napol erri noblea da
arek urrean Kalabria
Genoako kondaduan
Pisakin Florenzia
Pullalekin Ferrera baino
obeagoa da Beneszia
munduak klaramentean daki
zurca dana Zizilia
[...]ostaenez lezu on dira
Toskanarekin Lombardia
aei gustiak baino bere
obeago ene amore oneszia

56.— KOPLA ZENBAKITUAK

51

Bada nola kantadu ezpadaki
edo zer kantadu ezpadauko
eztau musiko inor benziduko

52

Askok enzuten dau nik probadu dot
polseak ez ebena enlazadu
aoak egiala alkanzadu

53

Esazu zegaiti danzuanean
jaio barri danak kantaeta
loak benzisen dau inozentea

54

Arzaiten dau enzunago deskansua
zerren arimeetan klaramente
dago musikea beti presente

55

Bada sei batek arzaiten badau
kantu simple batez ainbat deskansu
zerren ez gazteak baldin badanzu

56

Esan badagizu ezta faltako
neurk jakin ez arren badogu diru
juglare pare bat nogaz konplidu

57

Apukaduko jazu bein barriz
alkilazen bazabilz lagun ona
beste bati apuka egiona

58

Gizon bat ebilen utra galdurik
donzella eder baten serbietan
zeiñak amorez eben penaetan

59

Urte bat eta bi bost eta amar
kastadu egian desditzaduak
beti bere minaz fatigaduak

60

Gizon onek seme bat badukan
kantalari guztiz graziosoa
gazte lindo kortes kuriosoa

61

Baegion aiteak erregutu
gau baten arren lagun legiola
zerren asegin andi leiola

62

Semeak baeson ni asegin dot
aita egin zure mandamentua
zerren ori da ene kontentua

63

Bajoazen bada gau illun baten
aitea ta seme biak batera
aitearen bioza kopla zera

60

Baeson aiteak ene semea
neuri bano oba deretxudana
ebentxe bizi da ene laztana

61, 65

Bada bear dozu dagoan gero
gau aroau illun fresko ta oza
dulzero kopladu ene bioza

62, 66

Tenplazen asi zan biguelea
kontentaetarren bere aitea
esanjk ai Jesus ene koitea

67

Comienza la musica

M 1

Udabarri guztiz alegerea
maiazeko lora ederraena
ze indazu beti oneinbat pena

M 2

Gau illun onetan egizu argi
irargi zuria eta ederra
rendidurik nago ze bekit gerra

M 3

Dakusun azkero ene negarrok
ene laztan maite bioz gogorra
nola zara nigaz mutu ta gorra

M 4

Zer irabazten dozu ni ilagaz
edo zer ideraiten anitzuaz
edo zer galzaite ni osatuaz

M5 68

Mereszidu ezpadot ezer bere
neure partez zerren naxan pobrea
zureti bai zerren naxan zurea

M6

Begiratu baga zuk ni nor naxan
salbo zu zeurori nungo zarean
nidokazu nagoan penarean

M7

Nik eztot galduko esperanza
alferrik izango da kurelago
naiz beaza begit naiz alago

M8

Edo nafinzu barrez sekulako
edo zuk indazu bizi tristea
zuregan dan azkero emaitea

M9

Ni ez nagozu eske fiadurik
ez urregorria ez laborea
salbo zor deustazun amorea

M10

Ene aragiok ikara dabilz
ainbat sartu jate zure bildur
beretxat naxala gaxtolaz

M 11

Begiok irekazu gutxi baten
eta inka ezazu orrerean
zeure sierbo onen biozean

M 12

Zegaiti dakusan nola dagoan
ia bizi onegaz aspertua
minez mila lekutan zulatua

M13

Zegaiti dakizun zeurk ekusita
ez naxana min baga kexaetan
baize justo naxala eskaetan

M14

Eske nagozuna ene laztana
akorda badezazu ukazea
nik bere ukazen dot bizizea

M 15

Juzgazen badozu uleonegaz
ozitu jatala niri odola
indarsuak ditut birlo? ta bola

91

Erdeeraazko ipui batek
la bieja escarmentada berba(*Irakurtezina*)
lebelia regazada paso el r(*Irakurtezina*)

92

Nik bere jaunorrekin ala gurarik
probadu dot mina eta dulzea
bietan busti da ene ulzea

93

Konkluizen dot nik onein bategaz
inor izango bada abisadu
bear dau forzoso enamoradu

94

Gizon damaogaz eztaukana
konbersazioa gusdu anditan
biao porra batez arraitan

* * *

37

Sentidu baga kastazen da
andiro aziendea
galzaiten dogu kreditoa
joia inestimablea

38

Egiten dogu delito bat
guztiz indolerablea
andiro ofendietan dogu
guztioen kriadorea

39

Onegaz enojaetan dogu
guk aren majestadea
alborotadu daroagu
birtuosooen bakea

40

Alteradurik jasarten da
pueblo popularea
guk barez irabazten dogu
infamearen nonbrea

41

Zeina dan gizon gaztearenzat
asa dakarren sar(*Irakurtezina*)ea
zuk eta zure lako (*Irakurtezina*) barriz
efinia eztaben penea

42

Sobrenonbre bat jenerala
pue(*Irakurtezina*)zeaz etea
Martin ga(*Irakurtezina*)ko prime ain barri
zuk niri itaunke(*t*)ea

43

Utra da neskak egiteko
pregunta losabagea
badanik bere dozuna legez
aragi gaxto gosea

44

Estilo onzat artu dozu
erro bakotx bat jaiztea
ai arren bada galde(*Irakurtezina*) oi zola
ortu artako frutea

45

Ilinti gatxek poda dezala
an jaiaiten dan boreea
astean bein balezarzue
aus oza ta brasea

agaz osatu lekidizu
matadurako frezea
[...]

64

Arreanik aterazu
il baten kalaberea
espilu artan mira zatez
neskame engañadea

65

Agan kontenpla badezazu
gogoaz biozerean
urteten prokuraduko dozu
zaoren kostunbrerean

66

Nik barriz erreguketan dizut
kunplietan dan gauzea
nigana gia eztezazula
sekula zeure barkea

67

Ene plazaan ze efinzu
zeure gorpuzet tendea
zegaiti ez dot nik erosiko
an jarri didin frutea

68

Konkluizen dot onein bategaz
salba prolixidadea
nik uste baño luze izan da
kartako parabolea

69

Bakit jarriko zareana
nigana enojadea
nik aregaiti ez nei emun
txoritxo baten lumea

70

Zeurorrekin emun dozun gero
kausa orejinalea
remediozat ar ezazu
zeurorrekin sufrietea

71

Aserraturik egon arren
ez dot isiko polsea
lau dukat bidalketan dizut
moneda alegerea

72

Estal ezazu oriegaz
zeure nezesidadea
on zara eze ezta faltako
zeruko ruziadea

* * *

31

Kabuan emaiten dau firmadurik
konklusioz zer zera berzerea
nebeaz bear dala terzerea

32

Ai ala gatxaren guztiz fortiza
ala biziaren bizi bedarra
benzu munduak ene deadarra

el 33 autor

Ona bada seoras klaramente
nun relatadu dan zuen bizia
zeina dan zuenzat guztiz gazia

34

Bada zeurk bazenduan eskojidu
zeurezat orrelako bizizea
zurazat ar ezazu sufrizea

* * *

19

Zu bazarade serbietan
jakiten naxan nungoa
baldin badozu adietan
erri artako berbaetan
ni banax Arabakoa

Copla 20

Urte askotan bizi banax
ezin nagoke arabaga
bardin da usdu dodan banax
neure izenaz nonbraeta nax
Joan Perez de Lazarraga

21

Amoreorrek il egidan
zagita batez bioza
libertadea gal ekidan
aren ordeko baegidan
prendatan etxi izoza

22

Agindu zidan negiala
dama eder bat serbidu
ark niri barriz legidala
gabaz egunaz alabala
kontrariozat segidu

23

Beti nabil kasoau dala
trabajadua azkero
inox ditxarik eztodala
benzedorezat atabala
jo jagiteko sendoro

24

Desditxaduau ditxaetan
beti narabil galdurik
akordadu dot erietan
desiertuko errietan
ez ebilterren saldurik
zazpi egun da nabilela
lekti despedidurik
ene zaldiau dabilela
berau piloto berau bela
jan baga fatigadurik

25

Jakizu bada gura badozu
ene jenaok euradu
aideok deseazen dabe
leku onera giaetan
ziertu prokurazen babe
birretan erabildu nabe
donzella bigaz ezkonketan

26

Basoetati ebili naiz
ez erri zelaietati
ni gizonegaz batu ez naiz
ia ja kasi txitez il naiz
eztakust begietati

27

Ziertamente au da bada
donzella poderosea
ene mina ta dubda baga
puntu bat enkubridu baga
kontadu dizut prosea

28

Nik au onela nesonean
goratu eben burua
jagi gindizen arerean
puntu artarik bertarean
illundu zidin zerua

29

Ene semea baesadan
artu egizu esporzu
zugaz asegin ar dezadan
gatxori repara dezadan
ielmo ori eronzu

30

Ainbat tempora dan azkero
zabilzadela galdurik
eben aseden eta gero
joan zatezke kaballero
andiro mejoradurik

40

Galdu balegi gizon batek
begietako bistea
gero mediku andi batek

47.— TESTU SOLTEAK

Al baneza dakidan legez
euroen arteko apetitoa
batek emun lezaket abitoa

Bada bere jaunaz ez nafinela
serbida bada ni pauso laz artan
parkatu ez nago ni denporatan

* * *

Konsolaitan naiz
da konsola zaitez
konsolaitan naiz
ni beti negares on
da pazenzia sufri[...]
balez galterik asko
iatork neure beares
ene gau egunok ga-
ziok dolorez
lorik ezin egin dot
amore minez dako

ita dolerez oi ene
laztanari alan-
zairez balia da-
kidala launa
amorez ezpa-
ilgo naiko dabe
røre? minez

* * *

Ene laztan zuri ederra
flordelisea zara zu
arren zatozke ene oera
beti ze egidazu gerra
borondaterik badozu

* * *

Piloxik jaio ninzan pilox nago
piloxik ilgo nax ni gero bere
ezteusta gaiti(*Irakurtezina*)enze bapere

* * *

Danon korrua leku askotaik
ondo akompañadua
dama galantak ara doaza
galanti adornaduak
gustietati lorea dira
orduan Axpurukoak

* * *

Estandarterik onaena
Jesukristoren kurzea
gauzarik ezta ain zierturik
nola dan eriozea

* * *

Amorea da onako zer bat
nundi datorren eztakit

* * *

Casaras y amansaras
pare baga arek la leña
kerellea (*Irakurtezina*)
zuk barizta
gora dei eropena eore

* * *

Mendi altuan erura daidi
aran baxuan eguzki
mendarank gustiak baino
ene koitaok naguzi
ikaz laztan ninduan donzella batek
aurten nai ez ekei
laster kanbiatu ninduan
deseo ebenagaiti

* * *

Leku ona Bikuña
soloan soloan muiña
edozeinek gura leike
angoa bere suiña